**PLA 3-C/2018**

**ZERBITZU KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ**

# BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

## EZAUGARRIEN TAULA

| KONTRATUAREN XEDEA | GAKOA | KODEA |
|---|---|---|
| San Lorentzo-Larreko tuneleko Iruñeko noranzkoko hodian (AP-15 autobidea) estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko (2004/54/CE Direktiba) proiektuko obrak zuzentzea | 3-IN-21/2017 DO | CPA: 71.12.12<br>CPV: 71311210-6 |

**AURREKONTUA**

| Zifratan | Letratan |
|---|---|
| **Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua**: 404.017,44 € (BEZik gabe) | Laurehun eta lau mila eta hamazazpi euro eta berrogeita lau zentimo (BEZik gabe) |
| BEZ: 84.843,66 € | Laurogeita lau mila zortziehun eta berrogeita hiru euro eta hirurogeita sei zentimo |
| **Balio zenbatetsia**: kontratuak izan ditzakeen luzapenak eta aldaketa guztiak kontuan hartuta: 471.517,44 € **(**BEZik gabe**)** | Laurehun eta hirurogeita hamaika mila bostehun eta hamazazpi euro eta berrogeita lau zentimo (BEZik gabe) |
| BEZ: 99.018,66 € | Laurogeita hemeretzi mila eta hemezortzi euro eta hirurogeita sei zentimo |

**URTEKOAK**

| Ekitaldia | Zenbatekoa | Aurrekontu xedapena |
|---|---|---|
| 2018 | 488.861,10 € | 1.0710.100.611.03.06 |

| GAUZATZEKO EPEA | BERANDUTZA ZIGORRAK |
|---|---|
| Epea kontratu hau osagarritzat duen obra kontratuaren berekoa izango da, gehi beharrezkoa den denbora obrak likidatzeko prestatze eragiketak egiteko. | Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginak 212.4 artikuluan aurreikusitakoak: atzeratutako egun natural bakoitzean, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko zigorra. |

**KAUDIMENA EGIAZTATZEA**

**1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea.** Enpresaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko, modu hauetakoren bat edo gehiago erabili behar da

a) Arrisku profesionalen gaineko aseguruaren egiaztagiria.

b) Urteko negozio bolumena.

Enpresak behar adinako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa duela joko da, agiri honetako 9. klausulan ezarritako irizpideak betetzen baditu.

**2. Kaudimen teknikoa egiaztatzea.** Kaudimen teknikoa honako modu honetan egiaztatuko da:

a) Enpresek azken bost urteetan gutxienez lan bat egina izana egiaztatu behar dute, kontratu honetakoaren xede bera edo antzekoa duena, eta aurrekontua (obrak egiteko aurrekontua, BEZik gabe), kontratu

honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontu BEZik gabearen % 50 baino txikiagoa izango ez dena (202.008,72 €). Era berean, agiri honetako 9. klausulan ezarritako baldintzak bete beharko ditu

b) Lantalde teknikoa ezaugarri teknikoen agiriko III. ERANSKINEAN zehaztutako langileek osatuko dute; eta agiri horretan eskatzen den esperientzia izango dute, gutxienez.

1. gutun-azaleko **(**gaitasuna eta kaudimena) 1. ataleko a, b, c, d,e,f eta i paragrafoetan ezarritako dokumentazio guztiaren ordez, lizitatzaileak erantzukizunezko adierazpen bat aurkez dezake (II ERANSKINA), Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela esango duena. **(**Ikus 9.klausula)

1. gutun-azaleko (gaitasuna eta kaudimena) 1. ataleko a, b, c, d paragrafoetan ezarritako dokumentazio guztiaren ordez ere, baldintza ekonomiko berezien agiri honetako IV. eranskinean jasotzen den erantzukizunezko adierazpen bat aurkez daiteke, behar bezala beteta. **(Ikusi 9.klausula)**

**2. <u>Kaudimenari buruzko baldintzak zehaztea.</u> (Ikusi 9. baldintza).**

**3. <u>Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea. (ikusi 9. baldintza).</u>**

**PREZIOAK BERRIKUSTEKO SISTEMA**

Ez dagokio prezio berrikuspenik

**BERMEAK**

| **Behin-behinekoa** | **Behin betikoa** |
|---|---|
| Ez da beharrezkoa | Esleipen zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe)- |

**OINARRIZKO ESKAINTZA ETA ALDAERAK**

| **Onarpena** | | **Eskakizunak, modalitateak eta aspektuak** |
|---|---|---|
| **ALDAERAK** | EZ | EZ DA ALDAERARIK ONARTUKO. |

**ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO DIRENAK**

| **Irizpidea** | | **Haztapena** |
|---|---|---|
| 1.- | Prezioa | **0 – 55 puntu** |

**ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO EZ DIRENAK**

| **Irizpidea** | | **Haztapena** |
|---|---|---|
| 2.- | **<u>LANEN, METODOLOGIAREN ETA KALITATEA BERMATZEAREN AZTERKETA.</u>** | **0-32 puntu** |
| | | |
| | Atal honetan, eskaintzaren atal hauek edukiko dira kontuan:<br>• Kontratuaren lan nagusien azalpena, lan bakoitzaren berezitasun eta zehaztasunak adieraziz (gehienez 30 orri DIN A4, 60 orrialde).<br>-Aldez aurreko fasea: balioetsiko da obrak hasi aurretik egin behar diren txostenak idazteko egin beharreko lanen deskribapena, baita komunikazio prozedurak, eta horietako bakoitzaren deskribapena eta edukia ere.<br>-Obrak gauzatzen diren bitartean egin beharreko jarduerak:<br>+ Obra Zuzendaritzak egin beharreko jarduerak: balioetsiko da Obra Zuzendaritzak egin beharreko jarduera esanguratsuenak jasotzea eskaintzan.<br>+ Kontratistak egin beharreko jarduerak, bereziki kontrolpean izan behar direnak, zailtasun berezi bat dutelako, behar bezala ez egiteak ondorioak izan | <u>0-24 puntu</u><br>0 - 6 puntu<br>0-12 puntu<br>0-6 puntu<br>0-6 puntu |

| | | |
|---|---|---|
| | ditzakeelako, edo ezkutuan geldituko direlako: balioetsiko da eskaintzan zehatz-mehatz azaltzea zeintzuk izan daitezkeen zeregin horiek, eta zer egin nahi den arazoak saihesteko.<br>- Egin beharreko jarduera osagarriak: proiektu aldatuak/osagarriak, simulakroa, ustiapen eskuliburua, prestakuntza gainbegiratzea, eta abar. balioetsiko da eskaintzan azaltzea ezaugarri teknikoen agirian zehaztutako jarduera osagarri bakoitzaren ezaugarri bereziak, eta nola egin nahi duten. | 0-6 puntu |
| | • Proiektuan aurkeztutako tuneleko kontrol sistemaren migrazio soluzioaren jarraipen lanen deskribapena eta kontrol mugarrien definizioa: maketak, probak eta abar, (gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde).<br><br>• Proiektuan aurkeztutako euste soluzioaren jarraipen lanen deskribapena eta kontrol mugarrien definizioa: neurketak, lekukoak eta abar, (gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde). | <u>0-4 puntu</u><br><br><u>0-4 puntu</u> |
| 3.- | **<u>Kalitatea bermatzeko plana</u>**<br><br>Kalitatea bermatzeko planaren deskribapena Balioetsiko da eskaintzan sartzea Obra Zuzendaritzako lanetarako egingo litzatekeen kalitatea bermatzeko plana ( gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde).<br><br>Obrako Zuzendaritzaren kalitatea ikuskatzeko plana. Balioetsiko da eskaintzan sartzea kalitatea ikuskatzeko plana, Obrako Zuzendaritzak kontratistari buruz obran zehar egindakoa. ( gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde). | **0 – 10 puntu**<br><br>0-5 puntu<br><br>0-5 puntu |
| 4.- | **<u>Eskaintza egiten duenak proposa ditzakeen hobekuntza teknikoak eta kalitatekoak, agirietan eskatzen dena gainditzen dutelarik kontratuaren xederako interesgarriak direnak.</u>**<br>Atal honetan kontuan hartuko dira ondoren adierazten diren hobekuntzak, eta esplizituki azaltzen dutenak beren kostua egindako eskaintza ekonomikoaren barruan dagoela.<br>- Obra Zuzendaritzako ingeniari batek (espezialista ez dena) trafikoari irekita (ustiatzen) dauden errepide tuneletako obren zuzendaritzan duen esperientzia.<br>- Obra Zuzendaritzako bi ingeniarik (espezialistak ez direnak) trafikoari irekita (ustiatzen) dauden errepide tuneletako obren zuzendaritzan duten esperientzia.<br>- Obra Zuzendaritzako hiru ingeniarik (espezialistak ez direnak) trafikoari irekita (ustiatzen) dauden errepide tuneletako obren zuzendaritzan duten esperientzia. | **0-3 puntu**<br><br>1 puntu<br><br>2 puntu<br><br>3 puntu |
| | **AURKEZTUTAKO IDATZIETAN NAHITAEZ BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK (ALDE BATERA UTZITA GRAFIKOAK, ARGAZKIAK, DIAGRAMAK...).**<br><br>Aipatutako irizpideen inguruan aurkezten diren idatzi guztiek parametro hauek bete beharko dituzte:<br>*<u>Paperaren tamaina:</u> DIN A4*<br>*<u>Marjinak:</u> Behean eta goian: 2,5 cm*<br>*Ezkerrean-eskuinean: 3 cm*<br>*<u>Letra mota eta tamaina:</u> Arial normala; tamaina: 10*<br>*<u>Lerroartea: bakuna</u>* | |

**UNITATEKO PREZIOAK ETA KONTRATUAREN PREZIOA**

Ez da onartuko proposamen ekonomikorik, baldin eta unitateko prezioa gehitzen bada ezaugarri teknikoen agirian erreferentzia gisa agertzen den unitateko prezioa baino % 15 edo gehiago.

Zenbatetsitako neurketetan oinarritutako unitatezko prezioekin batera aplikatzearen ondoriozko gehieneko prezioak , inolaz ere ezin du gainditu kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

**FORMULA ARITMETIKOEN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA (PREZIOA)**

Onartutako eskaintzetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, jarraian adierazitako puntuek definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.

1 Puntua: beherapen maximoa (BMAX) Puntuazio maximoa: PMAX (55puntu)
2. puntua: batez besteko beherapena (BBB) Puntuazioa= PMAX x (100-0,05 x BBB)/100
3. puntua: batez besteko beherapenaren % 50 (0,50xBBBB) Puntuazioa= P (BBB) x (100 – 0,10 x BBB)/100
4. puntua: batez besteko beherapenaren % 200 (0,20xBBB) Puntuazioa= P (0,5 x BBB) x (100 - 0,30 x BBB)/100
5. puntua: beherapena = 0 (lizitazio oinarria) Puntuazio nulua

Beherapena (B) honela kalkulatuko da: lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

PMAX da beherapen maximoari dagokion puntuazioa, eta prezioaren irizpidean lor daitekeen puntuazio maximoari dagokio (55 puntu).

P(BBB) da batez besteko beherapenari dagokion puntuazioa, 2. punturako adierazitako formularen arabera lortutakoa.

P(0,5xBBB) da batez besteko beherapenaren % 50ari dagokion puntuazioa, 3. punturako adierazitako formularen arabera.

P(0,2xBBB) da batez besteko beherapenaren % 20ari dagokion puntuazioa, 4. punturako adierazitako formularen arabera.

Eskaintzako alderdi ekonomikoen azken balorazioa bigarren hamarrekoan biribilduko da.

Printzipioz, neurriz kanpokoak edo ezohikoak izango dira onartutako eskaintza guztien prezioen batez besteko aritmetikoa % 10 baina gehiago beheratzen duten eskaintzak; eskaintza bat neurriz kanpokoa edo ezohikoa dela deklaratzeko, aldez aurretik informazioa eskatu behar zaie ustez eskaintza horretan sartuta dauden enpresa lizitatzaile guztiei, eta aholkularitza teknikoa eskatuko zaio dagokion zerbitzuari.

## LIZITAZIOKO PUBLIZITATEKO GEHIENEZKO GASTUEN ZENBATEKOA

Esleipen hartzaileak iragarkia argitaratzeagatik ordaindu beharreko gehienezko zenbatekoa: 3.000 euro.

## ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

488.861,10 euro

## AZPIKONTRATA DAITEKEEN GEHIENEKO EHUNEKOA

Kontratistak hirugarrenekin adostu dezake prestazioaren zati bat egitea, gehienez esleipen zenbatekoaren % 48,67 adinakoa.

Honako atalak/espezialistak/lanak kontratatu ahal izango dira:

- Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea.
- Obra zibilaren jarraipena eta zaintza
- Instalazioen jarraipena eta zaintza
- Delineatzaile proiektista
- Administrari laguntzailea
- SCADA sisteman espezialista
- Komunikabide saretan espezialista
- Tunelak egiteko geologia eta geotecnian espezialista
- Topografo espezialista
- Eskaneatzea 3D moduan

## BERME ALDIA

SEI HILABETE (6), lanak jasotzat ematen direnetik aurrera

## KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria, eta hauek arautua: Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan, euskararen erabilera normalizatzeko 2013-2017 aldirako plana. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratua betetzeko funtsezko betebehar bat da, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraz dezake (ikusi 24. baldintza).

## BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA LAN ARLOKOAK, GIZARTE SEGURANTZAKOAK, LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKOAK, ETA IZAERA SOZIALEKOAK

Kontratu honetan nahitaez bete beharko dira alor hauetan indarrean dauden legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak: lan arlokoak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoak; eta bereziki bete beharko dira jarduketei dagozkien hitzarmenak edo enpresa itunak (Gipuzkoan aplikagarri direnak), eta baldintza administratibo berezien agirian zehazten diren baldintza sozialak, adierazten den moduan.

## ALDAKETAK

Kontratua aldatu ahal izango da (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina, 106. artikulua)

Kontratu honen xede den obraren proiektu aldatuak edo osagarriak egin behar izanez gero, proiektu horiek kontratuaren xede bihurtuko dira, besterik gabe, baina ezingo da zenbatetsitako balioa gainditu, eta esleipendunak justifikatu beharreko partida altxatu bezala balioetsiko dira, 7.500 eurotan.

Aipatutako onarpenaren eraginez lanak egiteko epea luzatu behar bada, kontratuaren zenbatekoa handitu egingo da, gehieneko unitateko prezioa 60.000 euro/hileko (BEZik gabe), eskainitako beherapen ehunekoaren arabera, baina zenbatetsitako balioaren gehieneko aurrekontua gainditu gabe, betiere (471.517,44 euro, BEZik gabe).

## LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA

Uko edo atzera egiten badu: egindako gastuen ordaina emango zaio; gehienez, 1.000 €.

## AGIRIEN AURKEZPENA

Paperezko euskarrian aurkezteaz gain, 1, 2 eta 3. gutun-azaletan sartu beharreko dokumentazio guztia nahitaez aurkeztu beharko da CD, DVD edo USB memoriako euskarrietan, eta dokumentazio hori Administrazioaren esku geldituko da.

## KONTRATAZIO MAHAIA

MAHAIBURUA: Errepideetako zuzendari nagusia, Silvia Pérez Yéboles

LEHENDAKARIORDEA ETA 1. BOKALA: Kudeaketako eta Plangintzako zuzendari nagusia, Mikel Uribetxebarria Barrena

2. BOKALA: Bide Artapeneko eta Kudeaketako zerbitzuburua, Iñigo Zufiria Zatarain

3. BOKALA: Departamentuko Idazkari Teknikoa, Elixabete Martinez Iruretagoiena

4. BOKALA: Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzua ordezkatzen duen pertsona. Hasiera batean ezinezkoa denez aipatutako Zerbitzuaren ordezkaria zein den jakitea, eskaintzak ireki aurretik kontratistaren profilean argitaratuko da Kontratazio Mahaiaren behin betiko osatzea.

IDAZKARIA: Kontratazio Zerbitzuko burua, Miguel Fonseca de la Rosa.

Diputatuen Kontseiluaren 6-C/2018 Erabakiaz onartua.
Donostia, 2018ko otsailaren 14a

IDAZKARI TEKNIKOA

Elixabete Martinez Iruretagoiena

Gipuzkoako Foru Aldundia
Bide Azpiegituretako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Infraestructuras Viarias

A U R K I B I D E A

**I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK ... 8**
1.- KONTRATUAREN XEDEA ... 8
2.- BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA ... 8
3.- FINANTZIAZIOA ... 8
4.- GAUZATZEKO EPEA ... 9
5.- PREZIO BERRIKUSPENA ... 9
6.- KONTRATUAREN ARAUAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA ... 9
**II. KAPITULUA KONTRATAZIOA ... 10**
7.- ESPEDIENTE MOTA ETA LIZITAZIO PROZEDURA ... 10
8.- LIZITATZAILEAK ... 10
9.- PROPOSAMENAK: DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK ... 10
10.- FISKALITATEARI, INGURUMENAREN BABESARI, ENPLEGUARI ETA LAN BALDINTZEI BURUZKO BETEBEHARREN INGURUKO INFORMAZIOA LORTZEA ... 16
11.- ESKAINTZAK AURKEZTEA ... 17
12.- ESKAINTZAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA ... 17
13.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK ... 18
14.- ESKAINTZEN SAILKAPENA, ETA KONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA ... 19
15.- BEHIN BETIKO BERMEA ... 20
16.- ESLEITZEA ... 21
17.- KONTRATUA FORMALIZATZEA ... 21
**III. KAPITULUA KONTRATUA GAUZATZEA ... 22**
18.- OBREN ZUZENDARITZA ... 22
19.- KONTRATUKO EPEAK ... 22
20.- LAN PROGRAMA ... 22
21.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK ... 22
22.- BETEBEHAR SOZIAL BATZUK ... 24
23.- KONTRATISTAK LAN, GIZARTE SEGURANTZA ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK ... 24
24.- KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK ... 25
25.- KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA ... 26
26.- LANGILEAK ETA LANTALDEA ... 26
27.- BITARTEKO TEKNIKOAK ... 27
28.- BAIMENAK ... 27
29.- ADMINISTRAZIO KONTRATATZAILEARENTZAKO LAGUNTZA ... 27
30.- EPEAK BETETZEA ETA BERANDUTZA ZIGORRAK ... 27
31.- BESTE ZIGOR BATZUK ... 28
32.- KLAUSULA SOZIALAK EZ BETETZEAREN ONDORIO JURIDIKOAK ... 28
33.- KONTRATUA BURUTZEA ETA KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA ... 31
34.- KONTRATUA BESTERI LAGATZEA ... 32
35.- AZPIKONTRATAZIOA ... 32
36.- KONTRATUA ALDATZEA ... 34
37.- BALORAZIOAK ETA ORDAINKETAK ... 34
38.- LANEN GUTXIENEKO EDUKIA ... 35
39.- LANAK EMATEA, AKATSAK ZUZENTZEA ETA ERANTZUKIZUNAK ... 35
40.- LANAK JASOTZEA, LIKIDATZEA ETA BERMEA ITZULTZEA ... 36
41.- KONTRATUA SUNTSITZEA ... 36
42.- LANAREN JABETZA ... 36
43.- KONTRAESANAK ... 37
**IV. KAPITULUA KONTRATAZIO MAHAIA ... 37**
44.- KONTRATAZIO MAHAIA ... 37
**I. ERANSKINA ESKAINTZA EREDUA ... 38**
**II. ERANSKINA ERANTZUKIZUNEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, LIZITAZIO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOA ... 39**
**III. ERANSKINA LANETAN PARTE HARTUKO DUTEN LANGILEEN ZERRENDA ... 40**
**IV. ERANSKINA ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA, ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO GAITASUN BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOA ... 41**
**V. ERANSKINA ELKARLOTURA DUTEN ENPRESEN ADIERAZPENAREN EREDUA ... 43**

VI. ERANSKINA  BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ETA EXEKUZIOKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEAREN ADIERAZPEN-EREDUA........................................................44
VII. ERANSKINAESKAINTZA ERREGISTROAN AURKEZTEKO EREDUA...............................................47

# I. kapitulua XEDAPEN OROKORRAK

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratu honen xedea da agiri honetan aipatzen den zerbitzua ematea, zeina osatuko den Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiko Iñigo Zufiria Zatarain horretarako idatzitako 2017ko abenduko Ezaugarri Teknikoen Agirian aipatzen denaz. Behar izanez gero, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak I. liburuko V. tituluan eta 219. artikuluan aurreikusitako kasuen arabera tramitatu ahal izango diren aldaketak ere xede izango ditu.

2.- Kontratazio organoak kontratu honen xedeko obraren baterako proiektu aldatuak edo osagarriak onartzen baditu, automatikoki kontratu honen xedekotzat hartuko dira.

3.- Kontratu honen bitartez beteko dira Ezaugarri Teknikoen Agirian deskribatuta dauden eginbeharrak, bertan aipatuta dauden lanak eginez.

4.- Agiri honen karatulan emana daude 2008ko Jardueren araberako Produktuen Sailkapen Estatistikoko nomenklaturan dagokion kodea (PJS 2008) eta Kontratuen Lexiko Komuneko nomenklaturari (KLK) dagokion kodea.

## 2.- BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Kontratu honi zer esleipen prozedura aplikatuko zaion erabakitzeko eta lizitatzaileek zer gaitasun izan behar duten ezartzeko, kontratuaren balio zenbatetsia hartu da kontuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 88. artikuluan azaldutako moduan kalkulatua, eta agiri honen hasierako ezaugarrien taulan ageri dena. Balio zenbatetsi horretan sartuko dira (aurreikusten badira behintzat) baldintza agiriaren karatulan adierazten diren balizko luzapenak eta kontratu aldaketak.

2.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, agiri honen hasierako “ezaugarrien taulan” ageri den zenbatekoa da.

3.- Eskaintzetan, prezio garbia (BEZik gabe) adierazi beharko da, eta nahi izanez gero, baina aparte, BEZari dagokion zenbatekoa. Eskaintza ekonomikoen zenbateko garbiak (BEZik gabe) ezin du gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

4.- Kontratuaren prezioa zehazteko sistema, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 302. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako hau izango da: prestazioa banatuta dagoen zatiei dagozkien unitate prezioak.

5.- Lizitazioan hautatutako eskaintzan azaltzen den kontratuaren prezioa egongo da indarrean lanak egiteari dagokionez. Hor sartuta egongo dira Balio Erantsiaren Zerga eta aplikatu beharreko zerga guztiak, bai eta agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak esleipen hartzaileari dakarzkion gastu guztiak ere.

6.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 302. artikuluan aurreikusten duenaren ondorioetarako, kontratu honen prezioa zehazteko “oroharreko prezioaren” sistema erabiliko da.

7.- Obra kontratu nagusiaren epea besterik gabe luzatzen bada, eta kontratua aldarazten ez badu, ez da kontratu honen unitateko preziorik aldatuko.

## 3.- FINANTZIAZIOA

1. Badago behar adinako kreditu egokia, kontratua gauzatzeko kalkulatutako gehieneko gastuari aurre egiteko. Lanak finantzatzerakoan, agiri honen hasieran dagoen “ezaugarrien taulan” ageri diren aurrekontu sailak eta urtean urteko zenbatekoak erabiliko dira.

2. Aurkezten diren eskaintzek ezin dute inolaz ere gainditu gehieneko zenbateko hori.

## 4.- GAUZATZEKO EPEA

1.- Lana guztiz bukatzeko epea agiri honen hasieran dagoen “ezaugarrien taulan” agertzen dena da.

2.- Epea kontratu hau osagarritzat duen obra kontratuaren berekoa izango da, gehi beharrezkoa den denbora obrak likidatzeko prestatze eragiketak egiteko.

3.- Kontratu honek jasotzen ditu halaber, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu aurretik egin beharreko lanak.

4.- Kontratu epea ezin da luzatu.

## 5.- PREZIO BERRIKUSPENA

Ez dagokio prezio berrikuspenik.

## 6.- KONTRATUAREN ARAUAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

1.- Kontratua, izaeraz, obra kontratu administratiboa izango da. Kontratuak bete behar ditu izaera honetako kontratuei buruz lege-arau hauek xedatzen dutena: indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina, Sektore Publikoko Kontratuen 2007ko urriaren 30eko Legea neurri batean garatzen duen 2009ko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Administrazioen Kontratuen Erregelamendua indarrean dirauenean, edo horren ordezko erregelamendu arauak, 1970eko abenduaren 31ko Estatuaren Obrak kontratatzeko Baldintza Administratibo Orokorren Agiriko indargabetu gabekoak, eta dela Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan (2016ko apirilaren 7ko 3/2016 Legea, Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa), dela Gipuzkoako Foru Aldundiarenean, kontratazioa arautzen duten beste xedapen aplikagarri guztiak, eta, betiere, agiri honetako baldintzak eta klausulak, eta kontratuaren xede den proiektuaren Ezaugarri Teknikoen Agiria. Lege eta arau horien osagarri gisa, Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak beteko dira eta, horiek ezean eta orduan bakarrik, Zuzenbide Pribatukoak.

2.- Kontratua aplikatu edo interpretatzerakoan sor litezkeen auziak, kontratua gauzatzea, aldatzea, betearaztea eta suntsitzea Foru Aldundiko organo eskudunek erabakiko dituzte, kontratistari entzun ondoren, HAKLEOk 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Organo horiek hartzen dituzten erabakiak betearazi beharrekoak izango dira berehala.

3.- Erabaki horiek aurkaratzeko, administrazioarekiko auzietako jurisdikziora joko da.

4.- Hala eta guztiz ere, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu baino lehenago, eta nahiz eta erabakien aurka ezin den administrazio errekurtso arruntik aurkeztu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean araututa dagoen errekurtso berezia jar daiteke honakoen kontra:

a) Lizitazioko iragarkien eta lizitazioa arautzen duen agiriaren eta lanaren ezaugarriak ezartzen dituen agiriaren kontra.

b) Prozeduran egindako tramiteko egintzen aurka, baldin eta tramite egintza horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka zerbait erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitu ezina badakarte edota defendatu ezina edo eskubide edo interes legitimoentzako kalte konponezinen bat ekartzen badute. Prozedurak aurrera jarraitzea eragozten duten izapide-egintzatzat joko dira kontratazio-mahaiaren egintzak, lizitatzaileak baztertzea erabakitzen dutenean.

c) Esleitzeko ahalmena dutenek hartutako esleipen erabakiak.

d) Kontratu aldaketak, azpikontratazioa eta kontratuaren ebazpena.

5.- Errekurtsoaren xede diren erabakiek kaltetu dituzten edo kalte ditzaketen eskubide edo interes legitimoen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek jar dezakete kontratazio-arloko errekurtso berezia.

6.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 43. artikuluan xedatuta dagoen bezala, aurreko paragrafoaren arabera, lizitatzaileek eta Administrazioaren erabakien ondorioz eskubideetan edo interes legitimoetan kalteren bat izan dezaketen pertsona fisikoek eta juridikoek aukera dute errekurtsoa ebazteko ahalmena duten organoaren aurrean prozedurako urraketak zuzentzera edo erasandako interesetan beste kalterik ez eragitera bideratutako behin-behineko neurriak har daitezela eskatzeko, eta neurri horien artean egon daitezke kontratuaren esleitze prozedura edo kontratazio organoen edozein erabakiren exekuzioa etetera edo etenaraztera bideratuta daudenak. Eskaera hau kontratazio arloko errekurtso berezia jarri baino lehen egin daiteke.

## II. kapitulua KONTRATAZIOA

### 7.- ESPEDIENTE MOTA ETA LIZITAZIO PROZEDURA

Kontratazio espedienteak TRAMITAZIO ARRUNTA izango du. Kontratuaren lizitazioa eta esleipena egiteko PROZEDURA IREKIA erabiliko da, zehazki, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 157-161. artikuluetan eta Administrazioen Kontratuen Erregelamenduan horiei dagozkienetan aurreikusia eta arautua dagoena.

### 8.- LIZITATZAILEAK

1.- Administrazioarekin kontratuak egin ditzakete, nahiz pertsona naturalek nahiz juridikoek, espainolek nahiz atzerritarrek, baldin jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak sailkapen jakin bat eskatzen duenean, sailkapen horren jabe badira.

2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzaileek ez dute izango Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 60. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratatzeko debekurik ez dute izango, ezta ere, kontratua behin betiko esleitzeko garaian.

3.- Enpresek, horretaz gainera, kontratuaren xede den jarduera edo lana egiteko eskatzen zaien enpresa edo lanbide mailako gaikuntza izan behar dute.

4.- Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izateko, beharrezkoa dute, estatutuen edo sortze arauen arabera, kontratuko eginbeharrak beren jardueraren xede, gai edo esparrukoak izatea.

5.- Era berean, Administrazioak aldi baterako eratzen diren enpresa batasunekin kontratuak egin ditzake, eta ez da beharrezkoa kontratua esleitu zaion arte enpresa batasunaren eskritura egina egotea.

### 9.- PROPOSAMENAK: DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK

1.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte isil-gordea ziurtatzeko. Enpresak eskaintza aurkezten duenean, inolako baldintzarik eta salbuespenik gabe oso-osorik onartzen ditu Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta Ezaugarri Teknikoen Agiria. Agiriak ez onartzeak nahitaez dakar ekaintza baztertzea.

2.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Lizitatzaile bat bakarka aurkeztu bada, ezingo da beste batzuekin aldi baterako enpresa batasunean elkartuta aurkeztu, ezta lizitazioan parte hartzen duten enpresa batasun batean baino gehiagotan sartuta egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

3.- Agirien eta dokumentazio osagarriaren argibide gehiago behar izanez gero, eskabide orria Departamentuko Erregistroan aurkeztu behar da, eskaintzak aurkezteko epemuga baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

4.- Lizitatzaileek bere borondatez onartzen dute erakunde gardentasuna ematea lizitazio, esleipen eta exekuzio prozesuetatik eratorritako datu guztiei, amaiera arte.

5.- Eskaintzak hiru kartazaletan aurkeztuko dira, aurrerago adierazten den moduan, bakoitzean dagozkion agiriak sartuta.

Gutun-azal bakoitzean, **aparteko orri batean**, gutun-azalaren edukia zehaztuko da, zenbakien bidez zerrendatuta (Administrazioen Kontratuen Erregelamendua, 80.1 artikulua).

## 1. GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Paperezko euskarrian aurkezteaz gain, 1. gutun-azalean sartu beharreko dokumentazio guztia nahitaez aurkeztu beharko da CD, DVD edo USB memoriako euskarrietan, eta dokumentazio hori Administrazioaren esku geldituko da.

***1.-*** 1. gutun-azalaren barnean dokumentu hauek egon behar dute:

a) ***Enpresaren jarduteko gaitasuna eta, behar denean, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak,*** Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 21. artikuluan aurreikusita dagoen bezala.

Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko modua:

- Enpresa pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura aurkeztu behar da, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldin merkataritza gaietako legeriaren arabera hala badagokio. Merkataritza Erregistroan inskribatzeko obligaziorik ez badago, jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokion erregistro ofizialean inskribaturiko eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera agiria, jarduera erregulatzen duten arauak jasota ageri dituena.

- Enpresa pertsona bakarrarena denean, Nortasun Agiria edo haren ordez balio duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.

- Espainiaz kanpoko enpresak badira, Europar Batasuneko kide edo Europar Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioaren sinatzaile den estaturen batekoak, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 9. artikuluari jarraituz egiaztatu behar dute.

- Espainiaz kanpoko gainerako enpresek Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 10. artikuluari jarraituz egiaztatu behar dute; horrelako enpresek Espainian sukurtsala zabalik, eragiketetarako ahaldun edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda eduki behar dituzte.

- Beste norbaiten izenean agertu edo eskaintzak sinatzen dituztenek Nortasun Agiriaren edo haren ordez balio duen dokumenturen baten kopia aurkeztu behar dute, eta behar adinako ahalordea dutela egiaztatu. Enpresa pertsona juridikoa izango balitz, ahalordea Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea beharrezkoa da. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan idatzita egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) ***Berariazko eta erantzukizunezko adierazpena*** egin beharko da, eta esan beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 60. artikuluak xedatutakoaren arabera eta artikulu horretako l. puntuko c) letrak laneko segurtasun eta osasun alorreko arau hauste oso larriagatik zigor irmorik jaso ez izateari buruz dioena aipatuz, kontratatzeko inolako debekurik ez duela, zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela HAKLEOren 13. eta 14. artikuluetan jasotako moduan, eta kontratuaren xedeari dagokion epigrafean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela. Hala ere, gerta daiteke betebehar hori esleipena baino lehen egiaztatu behar izatea esleipen hartzaileak.

c) ***Fax zenbakia edo helbide elektronikoa, jakinarazpenak egiteko.***

d) ***Kaudimena.***

1) **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea.** Enpresaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko, modu hauetakoren bat edo gehiago erabili behar da:

a.- Arrisku profesionalen gaineko aseguruaren egiaztagiria.

b.- Kontratuaren xedeari dagozkion jardueren alorreko negozioen bolumenari buruzko aitorpena. Enpresaren sortze edo jardueren hasiera dataren arabera eskuragarri dauden azken hiru ekitaldiei gehienez dagokien aitorpena.

Enpresak kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa duela joko da honako irizpide hauek betetzen baditu:

- **Lanbide arriskuetarako kalte-ordainen aseguruak kontratuaren balio zenbatetsia estali behar du, gutxienez (471.517,44 euro, BEZik gabe).**

  Baldintza hori egiaztatzeko, aseguratzaileak egindako ziurtagiria aurkeztuko da, eta bertan jaso beharko dira aseguratutako kopuruak eta arriskuak, eta aseguruaren epemuga; eta behar den kasuetan, asegurua hartzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen dokumentua.

  Baldintza hori betetzat hartuko da baldin eta lizitatzaileak edo hautagaiak eskatzen den asegurua hartzeko konpromiso loteslea hartzen badu bere eskaintzan, kontratua esleitzen bazaio; konpromisoa hamar laneguneko epean gauzatu beharko du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 151.2 artikuluan xedatutakoa betez.

- **Negozioen bolumen globalari dagokionez, nahikoa izango da urte horietako bakoitzean izandako negozio zifra kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua adinakoa izatea gutxienez (404.017,44 euro, BEZik gabe).**

  Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio bolumena egiaztatzeko, Merkataritza Erregistroan onetsitako eta han utzitako urteko kontuak erabiliko dira, enpresaria erregistro horretan izena emanda dagoenean; eta, ez dagoenean, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean utzitako urteko kontuak. Merkataritza Erregistroan izena eman gabe dauden enpresari indibidualak, urteko negozio bolumena egiaztatzeko, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario liburuak eta urteko kontuen liburuak erabiliko dituzte.

2) **Kaudimen teknikoa egiaztatzea.** Kaudimen teknikoa egiaztatzea. Kaudimen teknikoa baliabide hauekin eta modu honetan egiaztatuko da:

   a) **Enpresek azken bost urteetan gutxienez lan bat egin izana egiaztatu behar dute, kontratu honetakoaren xede bera edo antzekoa duena, eta aurrekontua (obrak egiteko aurrekontua, BEZik gabe), kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontu BEZik gabearen % 50 baino txikiagoa izango ez dena (202.008,72 €). Era berean, agiri honetako 9. klausulan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.**

   Aurreko paragrafoan adierazitako lanak egin izana soilik egiaztatu ahal izango da, organo eskudunak emandako ziurtagiri edo ikus-onetsien bidez, hartzailea sektore publikokoa denean; eta hartzailea subjektu pribatua denean, subjektuak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

   Egiaztagirietan lanen zenbatekoa, datak, kokapena eta hartzailea publikoa edo pribatua den adierazi beharko da.

   Enpresak halako lanen bat aldi baterako enpresa batasun baten barruan egin badu, enpresa batasunaren barnean zeukan partaidetzaren proportzioan kontatuko zaio egindako lanaren diru zenbatekoa, eta, hori jakiteko, partaidetza portzentajea adierazi behar du aurkezten duen dokumentazioan.

   b) Enpresek zehaztu beharko dute kontratuan parte hartuko duen talde teknikoa, III. eranskinean xedatutakoaren arabera. **Talde teknikoan gutxienez egongo dira baldintza administratibo berezien agiriko VI. eranskinean (Baliabideak atxikitzeko konpromisoa) zehazten diren lanpostuak, han aipatzen diren gutxieneko titulazio, dedikazio eta lanbide esperientziarekin.**

3) **Sozietate talde bateko nagusi diren pertsona juridikoen kasuan**, taldea osatzen duten sozietateak kontuan hartu ahal izango dira nagusi den pertsona juridikoaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzeko, baldin eta pertsona juridiko horrek egiaztatzen badu bere esku dituela kontratuak gauzatzeko beharrezkoak diren sozietate horien bitartekoak.

e) **1. Kaudimenari buruzko baldintzak zehaztea.**

Enpresa lizitaziora onartu ahal izateko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 64. artikuluan xedatutakoa betez, enpresek adierazpen arduradun bat aurkeztu beharko dute, **VII. eranskinari** jarraituz, hitzemanez kontratuaren exekuziorako xedatuko dituztela han adierazitako langile eta bitarteko materialak, dagozkien profil eta zehaztapenekin.

**2. Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea.**

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresa beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, eta, betiere, kontratua gauzatzeko behar diren bitarteko horiek badituela egiaztatzen badu.

f) ***Lizitatzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiari buruzko adierazpena*****.** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 63. artikuluan xedatzen duenaz gain, agiri honen karatulan azpikontratatzeko aukera aurreikusten bada, lizitatzaileek bere eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zati bat azpikontratatzea aurreikusi duten edo ez, azpikontratatzekotan, zenbatekoa zenbat litzatekeen edo gehieneko portzentajea zenbatekoa litzatekeen adieraziz, eta lan hori egingo duen azpikontratistak zer izen edo enpresa-profil duen (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta.

g) ***Lizitatzaileen agiri eta datu konfidentzialak*****.** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 140. artikuluan xedatzen duen modura, lizitatzaileek adierazi behar dute zein agiri administratibo eta tekniko eta zer datu hartu behar diren konfidentzialtzat, hartu beharrekorik badago, eta adierazpen osagarri batean azalduko dute hori. Konfidentzialtzat jotako agirian bertan ere argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori (gainean, orri-ertzean, edo beste edonola). Lizitatzaileek aurkeztutako agiri eta datuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira, horien berri hirugarren bati emateak enpresaren merkataritza interes legitimoen kontra egin dezakeenean, alor bereko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edo Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako debekuak urratzen dituenean. Adierazpen hori egiten ez bada, ulertuko da aurkeztutako agiri edo datu guztiak edo batzuk, ezaugarrien arabera, ez direla konfidentzialak.

h) Eskaintza aurkezten duena aldi baterako enpresa batasuna bada, enpresa kide bakoitzak egiaztatu behar ditu zerbitzuen kontratista gisa obrak kontratatzeko dituen gaitasuna eta kaudimena -eta, hala badagokio, zerbitzu enpresari dagokion sailkapena–. Horrelakoetan, agiri honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatzeko, enpresa batasuneko kide bakoitzaren banakako sailkapenak edo, bestela, kide diren enpresen sailkapenak elkarri gehituko zaizkio. Era berean, enpresa guztietako legezko ordezkariek sinatutako agiri bat aurkeztu beharko da, non adieraziko baitira eskaintza izenpetzen duten enpresen izenak eta egoerak, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa batasun gisa eratzeko konpromisoa eta enpresa bakoitzak batasunean izango duen partaidetza; halaber, kontratuak irauten duen bitartean Administrazioaren aurrean enpresa guztien ordezkaritza osoa nork izango duen izendatu beharko dute.

Era berean, helbide bakar bat adierazi beharko da, kontratua sinatu arte egin beharreko jakinarazpen eta komunikazioetarako.

Sailkapen jakin bat egiaztatu behar denean, eskaintza izenpetu duten enpresen artean herrialde desberdinetakoak badaude –Espainiakoak, Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoak, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoak–, Espainiakoek eta Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoek beren sailkapena egiaztatu behar dute, eta Espainiatik kanpoko Europar Batasunekoek, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala.

i) Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako kasuen arabera beste enpresa batzuekin ***elkarloturik ez egotearen adierazpena*****, eta, talde bereko enpresa bat baino gehiago lizitazio berera aurkezten badira, kontratuaren esleipenera indibidualki proposamenak aurkezten dituzten eta lizitatzailearen enpresa talde berekoak diren enpresen zerrenda.** Adierazpen hori agiri honen eranskinean jasotzen den eredua (V. ERANSKINA) erabiliz egin beharko da.

j) ***Atzerriko enpresek*** adierazpen bat aurkeztuko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegiren mende jarriz beren burua eta, hala dagokionean, lizitatzaileari atzerrian egokitu dakiokeen jurisdikzio foruari uko eginez.

Europar Batasunetik kanpoko enpresek egiaztatu behar dute Espainian sukurtsala zabalik dutela, eragiketetarako ahaldun edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda.

Enpresa horiek aurkeztuko duten dokumentazioak ofizialki gaztelerara edo euskarara itzulita egon beharko du, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

k) 50 langile edo gehiago dituzten enpresek egiaztagiriak aurkeztuko dituzte, ziurtatzeko betetzen dutela % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostuen kuota betetzen dutela, edo modu osagarrian edo subsidiarioki, betetzen dituztela har ditzaketen neurri alternatiboak, kontuan hartuta 2013ko azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haiek gizarteratzearen lege orokorraren testu bategina onartzekoa, nahiz lege hori garatzen duen araudia.

Ondorio horietarako, enpresaren ziurtagiri bat eskatuko da, non agertu behar diren bai langileen kopuru osoa, bai desgaitasuna duten langileen kopuru berezia; bestela, enpresak legez aurreikusitako neurri alternatiboak betetzeko erabakia hartzen badu, salbuespen aitorpenaren kopia bat eta gaiaren inguruan aplikatutako neurri zehatzak jasotzen dituen lizitatzailearen aitorpena aurkeztu behar ditu.

l) ***“Gipuzkoako foru administrazioko eta foru sektore publikoko gainerako entitateetako kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzeko konpromisoaren adierazpena.*** Adierazpen horrek aipatutako kodea betetzeko konpromisoa jasoko du agiri honen IV. eranskineko 7. eta 8. ataletan jasotzen den moduan.

m) Gutun-azal horretan sartutako agiri guztien **zerrenda**.

*2.-* **Aipatutako 1 zk.ko gutun-azaleko agiri horien guztien jatorrizko aleak edo kopia kauto edo konpultsatuak gai horretako legeriaren arabera aurkeztu behar dira.**

*3.-* **1. gutun-azaleko (gaitasuna eta kaudimena) 1. ataleko a), b), c), d), e), f) eta i) paragrafoetan ezarritako dokumentazio guztiaren ordez, lizitatzaileak erantzukizunezko adierazpen bat aurkez dezake (kontratazioralo Europako dokumentu bakarra) Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela esango duena. Deklarazio hori baldintza agiri honen II. eranskinean agertzen den ereduaren araberakoa izango da. Deklarazioa aurkezten bada, esleipendun izateko proposatua den enpresa lizitatzaileak kontratazio organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, eskatutako dokumentu guztiak badituela eta horiek baliozkoak direla.**

**1. gutun-azaleko (gaitasuna eta kaudimena) 1. ataleko a, b, c, d eta l paragrafoetan ezarritako dokumentazio guztiaren ordez ere, baldintza ekonomiko berezien agiri honetako IV. eranskinean jasotzen den erantzukizunezko adierazpen bat aurkez daiteke, behar bezala beteta.**

*4.-* Lizitatzailea Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda badago (Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala eta sailkapena ezartzen dituen 1998ko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautua eta Kontratisten Erregistro Ofizialaren jarduerari buruzko arauak finkatzen dituen 1998ko otsailaren 4ko Aginduaren bidez garatua), Erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiria edo haren kopia konpultsatua aurkez dezake, aurreko ataleko **a)** eta, kasua balitz, **d)** hizkietan aipatutako dokumentazioaren ordez. Aipatu den dokumentazio horren ordez, Europar Batasuneko sailkapenaren ziurtagiria ere aurkez dezake, edo baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuak emandako kontratatzeko gaitasunaren ziurtagiria ere, hala aurreikusita baitago Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko prozedura ezartzen duen 2001eko martxoaren 13ko 24/01 Foru Dekretuan.

Horrela, **a)** edo **d)** ) hizkietan aipatu diren eskakizunak han adierazi diren ziurtagirien bitartez egiaztatzen badira, lizitatzaileak erantzukizunezko adierazpena ere aurkeztu behar du, ziurtagirietan azaltzen diren egoerak ez direla aldatu baieztatzen duena.

*5.-* **Nolanahi ere, kontratazio organoak, prozedura behar bezala amaituko dela bermatzeko, esleipen proposamena baino lehen edozein unetan eska diezaieke lizitatzaileei kontratua esleitzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa.**

*6.-* **Administrazioarekin kontratua egiteko eskatzen diren gaitasunaren eta kaudimenaren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko unea proposamena aurkezteko epearen amaiera izango da.**

**2. GUTUN-AZALA: LANEN AZTERLANA, METODOLOGIA ETA KALITATEA BERMATZEA; KALITATEA BERMATZEKO PLANA, ETA KALITATEA ETA TEKNIKA ARLOKO HOBEKUNTZAK**

Paperezko euskarrian aurkezteaz gain, 2. gutun-azalean sartu beharreko dokumentazio guztia nahitaez aurkeztu beharko da CD, DVD edo USB memoriako euskarrietan, eta dokumentazio hori Administrazioaren esku geldituko da.

2. gutun-azalean dokumentu hauek egon behar dute:

**A. LANEN, METODOLOGIAREN ETA KALITATEA BERMATZEAREN AZTERKETA.**

Eskaintzetan ondorengo atalak garatu beharko dira, eta atal bakoitzaren zuzentasuna, azterketaren xehetasun maila eta lizitazioaren xede den kontratuarekiko egokitasuna baloratuko dira

- Kontratuaren lan nagusien azalpena, lan bakoitzaren berezitasun eta zehaztasunak adieraziz (gehienez 30 orri DIN A4, 60 orrialde).

  - Aldez aurreko fasea: balioetsiko da obrak hasi aurretik egin behar diren txostenak idazteko egin beharreko lanen deskribapena, baita komunikazio prozedurak, eta horietako bakoitzaren deskribapena eta edukia ere.

  - Obrak gauzatzen diren bitartean egin beharreko jarduerak:

    + Obra Zuzendaritzak egin beharreko jarduerak: balioetsiko da Obra Zuzendaritzak egin beharreko jarduera esanguratsuenak jasotzea eskaintzan.

    + Kontratistak egin beharreko jarduerak, bereziki kontrolpean izan behar direnak, zailtasun berezi bat dutelako, behar bezala ez egiteak ondorioak izan ditzakeelako, edo ezkutuan geldituko direlako: balioetsiko da eskaintzan zehatz-mehatz azaltzea zeintzuk izan daitezkeen zeregin horiek, eta zer egin nahi den arazoak saihesteko.

  - Egin beharreko jarduera osagarriak: proiektu aldatuak/osagarriak, simulakroa, ustiapen eskuliburua, prestakuntza gainbegiratzea, eta abar. balioetsiko da eskaintzan azaltzea ezaugarri teknikoen agirian zehaztutako jarduera osagarri bakoitzaren ezaugarri bereziak, eta nola egin nahi duten.

- Proiektuan aurkeztutako tuneleko kontrol sistemaren migrazio soluzioaren jarraipen lanen deskribapena eta kontrol mugarrien definizioa: maketak, probak eta abar, (gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde).

- Proiektuan aurkeztutako euste soluzioaren jarraipen lanen deskribapena eta kontrol mugarrien definizioa: neurketak, lekukoak eta abar, (gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde).

**B. KALITATEA BERMATZEKO PLANA**

Kalitatea bermatzeko planaren deskribapena Balioetsiko da eskaintzan sartzea Obra Zuzendaritzako lanetarako egingo litzatekeen kalitatea bermatzeko plana (gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde).

Obrako Zuzendaritzaren kalitatea ikuskatzeko plana. Balioetsiko da eskaintzan sartzea kalitatea ikuskatzeko plana, Obrako Zuzendaritzak kontratistari buruz obran zehar egindakoa. ( gehienez 10 orri DIN A4an, 20 orrialde).

**C. ESKAINTZA EGITEN DUENAK PROPOSA DITZAKEEN HOBEKUNTZA TEKNIKOAK ETA KALITATEKOAK, AGIRIETAN ESKATZEN DENA GAINDITZEN DUTELARIK KONTRATUAREN XEDERAKO INTERESGARRIAK DIRENAK.**

Atal honetan kontuan hartuko dira ondoren adierazten diren hobekuntzak, eta esplizituki azaltzen dutenak beren kostua egindako eskaintza ekonomikoaren barruan dagoela.
- Obra Zuzendaritzako ingeniari batek (espezialista ez dena) trafikoari irekita (ustiatzen) dauden errepide tuneletako obren zuzendaritzan duen esperientzia.
- Obra Zuzendaritzako bi ingeniarik (espezialistak ez direnak) trafikoari irekita (ustiatzen) dauden errepide tuneletako obren zuzendaritzan duten esperientzia.

- Obra Zuzendaritzako hiru ingeniarik (espezialistak ez direnak) trafikoari irekita (ustiatzen) dauden errepide tuneletako obren zuzendaritzan duten esperientzia.

### 3. GUTUN-AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

Paperezko euskarrian aurkezteaz gain, 3. gutun-azalean sartu beharreko dokumentazio guztia nahitaez aurkeztu beharko da CD, DVD edo USB memoriako euskarrietan, eta dokumentazio hori Administrazioaren esku geldituko da.

1.- **Eskaintza ekonomikoa** agiri honen I. eranskinean agertzen den ereduari orpoz orpo jarraituz egin behar da, eta, bertan eskatzen denez, adierazpenak, azalpenak eta eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa azaldu behar dira. Agiriak hutsegiterik, ezabapenik eta akatsik gabe egon behar du, kontratazio organoak eskaintzen balioraziorako jakin beharrekoa jakiteko oztoporik izan ez dezan, eta horrelakorik edukiko balu, eskaintza baztertu egingo litzateke.

2.- Hitzez eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean alderik izanez gero, baldin eta eskaintzen den prezioa benetan zein den ezin bada argi ikusi, eskaintza baztertu egingo da.

3.- Eskaintza enpresa talde batek egina denean, taldeko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkariaren bitartez.

4.- Agiri horretan ageri diren prezioetan sartuta egon behar dute lanen kontratazioak eta gauzatzeak eragiten dituen edo eragingo dituen gastu guztiak eta, zehazki, hauek:

- Iragarkia aldizkari ofizialean edo ofizialetan argitaratzeko gastuak, indarrean dauden xedapenen eta, hala balegokio, kontratuaren arabera. Agiri honen hasieran dagoen “ezaugarrien taulan” azaltzen den diru kopurua ordaindu beharko du gehienez esleipendunak iragarkia argitaratzeagatik.

- Kontratuko prestazioa betetzeko esleipendunak egin behar dituen gastu guztiak: orokorrak, finantzarioak, aseguruetakoak, tasak, fidantzak, saiakerak, garraioa eta joan-etorriak, langile, teknikari eta laguntzaile guztien ordainsariak eta dietak, eta agiri honetan aurreikusitako beste guztiak.

- Zerga mota oro, BEZa edo kontratua indarrean dagoen bitartean ezarri edo alda daitezkeenak barne. BEZa dela-eta ordainarazi beharreko zenbatekoa aparteko kontu-sail batean agertuko da, eta bereizita adierazi beharko dira oinarri ezargarria, zergaren tasa eta zenbatekoa eta oinarri ezargarriaren eta zergaren zenbatekoaren batura.

Kontzeptu horiek ezingo dira gero aparteko kontzeptu edo kontu-sail gisa aurkeztu.

## 10.-FISKALITATEARI, INGURUMENAREN BABESARI, ENPLEGUARI ETA LAN BALDINTZEI BURUZKO BETEBEHARREN INGURUKO INFORMAZIOA LORTZEA

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 119. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lizitatzaileek obran egingo diren lanei edo kontratua gauzatu bitartean eskainitako zerbitzuei aplikagarriak izango zaizkien fiskalitateari, ingurumenaren babesari, eta enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio alorreko xedapenei buruzko betebeharren inguruko informazioa lortu ahal izateko, ondorengo erakundeak aipatzen dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuko Ogasun Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila (Gipuzkoako Lurralde Bulegoa).

2.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera eta **I. eranskinari** jarraituz, lizitatzaileek berariaz adierazi behar dute bere eskaintzak prestatzerakoan kontuan hartu dituztela enpleguaren babesaren, lan baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren babesaren inguruko xedapenetatik eratorritako betebeharrak.

## 11.-ESKAINTZAK AURKEZTEA

1.- Paperezko euskarrian aurkezteaz gain, 1., 2. eta 3. gutun-azaletan sartu beharreko dokumentazio guztia nahitaez aurkeztu beharko da CD, DVD edo USB memoriako euskarrietan, eta dokumentazio hori Administrazioaren esku geldituko da.

Fitxategiek ez dute eragozpenik izango kopiatzeko, eransteko edo inprimatzeko, osorik integratu ahal daitezen Bide Azpiegituretako Departamentuko informazio sistemetan.

Aipatutako biltegiratze euskarri eta gailuetan dauden artxibategiak izendatzerakoan, kontuan edukiko dira agiri honen bederatzigarren klausulan adierazitako atalak, 1., 2. eta 3. gutun-azaletan sartu beharreko agiriei buruzkoak.

CD, DVD edo USB memoriako edukiak editagarriak ez diren formatuetan aurkeztu behar dira (PDF, JPG eta abar).

**Eskatutako informazioa ez bada aurkezten euskarri horietan, proposamena baztertu egingo da.**

**Dena dela, desadostasunik egonez gero euskarri ezberdinetan dauden informazioen artean, paperezko euskarrian dagoena lehenetsiko da.**

Nahi izanez gero, deialdiaren iragarki ofizialean ezarritako eskaintzak aurkezteko epearen barruan, lanegunetako bulego orduetan, enpresa interesatuek azter ditzakete zerbitzu kontratu hau ekarri duten aurrekariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuan.

2.- Aipatu diren gutun-azalak, agiri honen VII. ERANSKINA den eskaintzak aurkezteko ereduarekin batera, aldizkari ofizialetan argitaratutako deialdiaren iragarkietan eta kontratatzailearen profilean (http://www.gipuzkoa.eus) zehazten den lekuan eta epean aurkeztu behar dira.

3.- Lizitatzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 80.4 artikuluak xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko du zein egunetan utzi zuen eskaintza posta bulegoan eta bidalketaren berri eman beharko dio Kontratazio Organoari telex, fax edo telegrama bidez, egunean bertan. Hori guztia posta elektronikoz ere jakinarazi ahal izango du, baina kasu horretan bide hori baliagarria izan dadin ezinbestekoa izango da bidalketa igorri eta jaso izana behar den eran jasota geratzea, komunikazioen datak eta eduki osoa agerikoak izatea eta igorlea eta jasotzailea modu sinesgarrian identifikatuta egotea; hala eginez gero, kopia inprimatua espedientean sartuko da. **Bi baldintza horiek betetzen ez direnean, dokumentazioa ez da onartuko kontratazio organoak iragarkian adierazitako eguna eta ordua bete ondoren jasotzen badu.** Hala eta guztiz ere, esandako eguna iritsi ondorengo hamar egun naturalak igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, berau ez da inolaz ere onartuko.

4.- Gutun-azalak itxita eta lizitatzaileak edo ordezkariak sinatuta aurkeztu behar dira, izen-abizenak edo enpresa lizitatzailearen izen soziala, telefono eta telekopia zenbakiak eta helbide elektronikoa jarrita, eta idazpuruan adieraziko da: **“San Lorentzo-Larreko tuneleko Iruñeko noranzkoko hodian (AP-15 autobidea) estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko (2004/54/CE Direktiba) proiektuko obrak zuzentzea (3-IN-21/2017 DO)”.**

Horrez gain, gutun-azal bakoitzean bere edukia adieraziko da, honela:

**1. GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

**2. GUTUN-AZALA: LANEN AZTERLANA, METODOLOGIA ETA KALITATEA BERMATZEA; KALITATEA BERMATZEKO PLANA, ETA KALITATEA ETA TEKNIKA ARLOKO HOBEKUNTZAK**

**3. GUTUN-AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA**

## 12.-ESKAINTZAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

1.- Lehenik, Kontratazio Mahaiak garai eta modu egokian aurkeztutako eskaintzen 1. gutun-azaleko dokumentuak kalifikatuko ditu. Kalifikatu ahal izateko, gutun-azalak irekitzeko aginduko du mahaiburuak.

Mahaiak dokumentazioan akats materialik aurkitzen badu, interesatuei jakinarazi eta gehienez hiru laneguneko epea emango die, Kontratazio Mahaiaren beraren aurrean zuzendu edo osatzeko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 82. artikuluan xedatutakoari begira, Kontratazio Mahaiak enpresari hark aurkeztutako ziurtagiriei edo dokumentuei buruzko argibideak emateko edo agiri osagarriren batzuk aurkezteko eska diezaioke, eta hark gehienez hiru egun baliodunen buruan bete beharko du eskatutakoa. Orduan Kontratazio Mahaiak ezingo du aintzat hartu lehenago aurkeztu beharrekoa zen dokumenturik, hau da, eskaintzak onartzeko epean edo akats edo hutsuneak zuzendu edo osatzekoan aurkeztu behar zenik.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 146.1 artikuluan aipatzen den dokumentazioa, zehazki 1. gutun-azalekoa, kalifikatu ondoren eta dokumentazioan egon zitezkeen akats edo hutsuneak konpondu eta gero, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 11. artikuluak aipatzen dituen hautaketa irizpideak zein enpresak betetzen dituzten erabakiko du Mahaiak, eta berariaz azalduko du lizitazioan zeintzuk onartu diren eta zeintzuk baztertu eta zergatik.

3.- Automatikoki kuantifikagarriak ez diren irizpideei buruzko 2. gutun-azalaren irekiera jendaurreko ekitaldi batean egingo da. Ekitaldi hori, luze jota, zazpi egun naturaleko epean egin beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 146.1 artikuluan aipatzen den dokumentazio administratiboa (1. gutun-azala: Gaitasuna eta Kaudimena) irekitzen denetik aurrera kontatuta. Kontratatzailearen profilean (http//www.gipuzkoa.net) eta onartutako lizitatzaileei faxaren edo posta elektronikoaren bidez bidaltzen zaien jakinarazpenean adierazitako tokian, egunean eta orduan egin beharko da eta balorazio organoari emango zaio bertan jasotako dokumentazioa.

4.- Onartutako proposamenetako 3. gutun-azalaren irekiera, aurreko jardunbideen ondoren, jendaurreko ekitaldi batean egingo da, kontratatzailearen profilean (http://www.gipuzkoa.eus) eta onartutako lizitatzaileei faxaren edo posta elektronikoaren bidez bidaltzen zaien jakinarazpenean adierazitako tokian, egunean eta orduan, balio judizio baten mende dauden irizpideei emandako ponderazioa jakinarazi ondoren.

5.- Eskaintzaren bat ez bada egokitzen aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio oinarriaren aurrekontua gaindituko balu, ezarritako eredua nabarmen aldatuko balu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria izango balu edo lizitatzaileak berak aitortuko balu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, Mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango eskaintza baztertzeko.

6.- Mahaiak eskaintzen ebaluazioa egingo du agiri honetan jasota dauden balorazio irizpideei jarraituz, garrantzi eta haztapen handienetik txikienerako ordenan, eta beraren iritziz egokiena dena proposatuko dio kontratazio organoari. Mahaiak, proposamena egin aurretik, kontratuaren xedearekin zerikusia duten eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

## 13.-ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

1.- Administrazioak, lizitazioa hutsik geratu dela deklaratu ezean, bere ustez ekonomikoki onena den eskaintzari esleituko dio kontratua.

2.- Kontratua esleitzeko irizpideak eta haztapena agiri honen hasieran dagoen "ezaugarrien taulan" ezarritakoak izango dira.

3.- Lizitatzaileren batek ez badu aurkezten formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

4.- Ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko honelako proposamenak: formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko atal bakoitzerako, agiri honetan ezarritako gehieneko luze-laburra gainditzen dutenak (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe). Gehieneko luze-laburra gaindituz gero, edukia baloratuko da onartutako gehieneko orri kopurura arte.

5.- Era berean, agiri honen karatulan idatzizko testuetarako ezarritako parametroetako edozein –paperaren tamaina, marjinak, letra mota eta lerroartekoa– kontuan eduki gabe aurkeztutako proposamen guztiak (alde batera utzita grafikoak, argazkiak, diagramak...), aipatutako esleipen irizpideei dagokienez, ez dira baloratuko kasuan kasuko irizpideari dagokionez, eta hori ez betetzeak ez du, inola ere, proposamena esleipen prozeduratik kanpo utziko.

6.- Eskaintzen ebaluazioa egiteko prozeduran, lehenik formula aritmetikoen bitartez neurtzekoak ez diren esleipen irizpideak aplikatuko dizkie eskaintzei Kontratazio Mahaiak.

Ildo horretan, irizpide horien arabera onenetik txarrenera baloratuko ditu eskaintzak, bakoitzaren ezaugarriei begiratuta eta beste eskaintzekin konparatuta, eta kontratuaren xedea ondo eta doitasunez betetzeko egokitasuna kontuan hartuta. Balorazio horren emaitza arrazoitu eta justifikatu egin behar du balorazio txostenean.

Mahaiak gero egingo duen beste egintza batean, zifra eta portzentaje bidez neurtzekoak diren gainerako irizpideen arabera baloratuko ditu eskaintzak.

Eskaintza guztiak irizpide guztien arabera baloratu eta gero, bakoitzak lortu dituen puntuazio guztien batuketa egingo du, eta guztira puntuazio onena lortzen duen eskaintza hautatuko du.

7.- Elkarlotura duten enpresek eskaintza desberdinak aurkezten badituzte, ohiz edo neurriz kanpoko eskaintzetarako Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 86. artikuluan erabakita dauden ondorioen menpe egongo dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 152. artikuluan aurreikusi bezala.

8.- Eskaintza bat neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat joko da, baldin eta onartutako proposamenetako prezio guztien batez besteko aritmetikoaren % 10etik gorako beherapena eskaintzen bada.

Neurriz kanpokoa edo ezohikoa dela jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, entzunaldia eman beharko zaio hura aurkeztu duen lizitatzaileari, eskaintzaren balorazioa azaldu eta haren baldintzak zehaztu ditzan, bereziki, ondorengo gaiei dagokienez: kontratuaren exekuzio prozesuak ahalbidetzen duen aurrezpena, onartutako irtenbide teknikoak eta prestazioa betetzeko dituen aldeko aparteko baldintzak, proposatutako prestazioen originaltasuna, prestazioa gauzatuko den lekuan enpleguaren eta lan baldintzen babesari buruz indarrean dauden xedapenak errespetatzea, edo Estatuaren aldetik laguntzaren bat jasotzeko aukera.
Eskaintzak neurriz kanpoko beherapena duela adierazteko adinako zantzuak badaude, lizitatzaileak beherapena zuritzeko arrazoiak aurkez ditzake; bertan ohartaraziko du lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan adierazitakoa baino etekin industrial txikiagoa eskuratzea aukeratu duela.
Ezohiko edo neurriz kanpoko balioak direla-eta proposamenak ez direla beteko uste izateko parametro objektibotzat hartuko da: kontratua gauzatzeko aplikagarri den hitzarmen kolektiboan lanbide kategoria bakoitzeko agertzen diren gutxieneko soldaten kostuak baino prezio txikiagoa adieraztea. Horrek eskaintza baztertzea ekarriko du.

Lizitatzaileak emandako azalpenak eta dagozkion txosten teknikoak ikusirik, kontratazio organoak uste badu ezohiko edo neurriz kanpoko balioak direla-eta eskaintza hori beteezina dela, orduan, eskaintza hori sailkapenetik kanpo utziko du, eta entitate kontratatzailearen iritziz ongi gauzatuko diren eta ezohikoak edo neurriz kanpokoak ez diren proposamenen artean, sailkapen ordenari jarraituz, ekonomikoki onena den hurrengo proposamenari egingo dio esleipena.

9.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko laugarren xedapen gehigarriari jarraituz, esleitzeko oinarri izan diren irizpideen arabera onenak izan diren eskaintzen artean parekotasuna badago, parekoen artean, kaudimen teknikoa egiaztatzeko garaian enpresako langileen artean % 2 ezgaitu baino gehiago duten enpresek aurkeztutako kontratuei emango zaie lehentasuna. Eskaintzarik onena egiten parean gelditu direnetatik lizitatzaile batek baino gehiagok egiaztatzen badu % 2 ezgaitu baino langile gehiagorekin lan harremana duela, orduan enpresako langile finkoen artean ezgaituen portzentaje handiena duenari emango zaio lehentasuna kontratuaren esleipenean. Hala ere parean badaude, prezio baxuena eskaini duen proposamena aukeratuko da; prezioa ere berdina bada, esleipena zozketaz erabakiko da.

## 14.-ESKAINTZEN SAILKAPENA, ETA KONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

1.- Behin eskaintzak baloratu ondoren, kontratua esleitzeko proposamena egingo dio Kontratazio Mahaiak Kontratazio Organoari. Proposamenean, eskaintza guztiak agertuko dira, beheranzko hurrenkeraren arabera antolatuta, esleipen irizpideen arabera eskaintza bakoitzak zer puntuazio izan duen jarriko da eta ekonomikoki onena den proposamena identifikatuko da.

2.- Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamena aurrean duela, kontratazio organoak, aurkeztu diren proposamenak antolatuko ditu, beheranzko hurrenkeraren arabera, agiri honetan adierazitakoaren arabera neurri gabekotzat edo ohiz kanpokotzat jo direnak izan ezik.

3.- Kontratazio organoak, Kontratazio Zerbitzuaren bidez, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio ezen, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 5 egun baliodunetan, aurkez dezala zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, edo kontratazio organoari eman diezaiola horren kreditazioa zuzenean lortzeko baimena; era berean, egiazta dezala eskuragarri dituela kontratua gauzatzeko xedatu edo atxikiko dituela agindu duen bitartekoak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorio horietarako, lizitatzaileak, IV. eranskineko eredua betez, berariazko baimena eman diezaioke administrazio kontratatzaileari, berari buruz Gipuzkoako Foru Aldundian jasota dauden zerga datuak administrazio horrek zuzenean ikusi eta dagokion egiaztagiria egin dezan. Baimen hori emanez gero, lizitatzaileak ez du aurkeztu beharko Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharretan egunean egotearen ziurtagiririk, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokiona izan ezik.

4.- Kontratua eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari ezin bazaio esleitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 151.2 artikuluan xedatzen duenari jarraituz, eskatutakoa behar bezala bete ez duelako, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta hala bada, eskaintzen sailkapen hurrenkeraren arabera hurrengo geratu den lizitatzaileari dokumentazio bera aurkezteko eskatuko zaio.

5.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzeko, urtean urteko ekitaldiari dagokion alta agiria aurkeztu beharko du, edo, bestela, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja ez duela eman esanez egindako erantzukizunezko adierazpenarekin batera (Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 15. artikulua).

Nolanahi ere, lizitatzailea legediak zehaztutako salbuespen egoeraren batean egonez gero, zergan alta emanda dagoela egiaztatu behar izateaz gain, salbuespen egoera hori egiaztatu beharko du zerga administrazio eskudunak emandako berariazko ebazpena aurkeztuz, edo, bestela, salbuespenaren arrazoia azalduz erantzukizunezko adierazpena egin beharko du.

6.- Eskaria ez bada aipatu epean betetzen, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta hala bada, eskaintzen sailkapen hurrenkeraren arabera hurrengo geratu den lizitatzaileari dokumentazio bera aurkezteko eskatuko zaio.

## 15.-BEHIN BETIKO BERMEA

1.- Aurreko klausularen arabera eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5eko kopurua (BEZik gabe) jarri behar du behin betiko bermetzat, eskatzen zaion egunaren biharamunetik hamar egun balioduneko epean. Bermea eratzea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan egin daiteke, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 55. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako eskakizunak beteta. Eskakizun hori esleipendunaren erruz betetzen ez bada, Administrazioak ez dio esleituko.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 100. artikuluan aipatzen diren kontzeptuengatik erantzuteko balioko du behin betiko bermeak.

3.- Kontratua aldatu dela-eta kontratuaren prezioa aldatzen denean, bermetzat jarritako zenbatekoa egokitu egin beharko da, une horretan indarrean dagoen kontratuaren prezioa eta bermea elkarrekin dagokien proportzioan egon daitezen; bermea egokitzeko epea 15 egun naturalekoa izango da, enpresari aldaketa jakinarazten zaion egunetik aurrera.

4.- Esleipendunari zigorrik edo kalte-ordainik jarri bazaio, bermea dagokion zenbatekoan berritu edo gehitu beharko du, haiek gauzatzen diren egunetik hasita 15 egun naturaleko epean, eta, hala egiten ez badu, kontratua suntsitzeko arrazoia emango du.

5.- Behin betiko bermea itzuli edo kitatzea, obraren berme aldia amaitu eta kontratua ondo bururatu eta gero egingo da, edo, kontratistaren errurik gabe kontratua amaitzen bada, amaitu dela deklaratzean.

## 16.-ESLEITZEA

1.- Kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du agiri honen 15. klausulan aipatutako dokumentazioa jasotzen duenetik bost egun baliodunen barruan.

2.- Agiriko irizpideen arabera baldin badago onartzeko moduko eskaintza edo proposamenen bat deialdia ezingo da bete gabe utzi.

3.- Kontratazio organoak, esleitu aurretik, kontratua gauzatzeari uko egin ahal izango dio interes publikoaren onetan, betiere espedientean behar bezala zurituta; edo, kontratua prestatzeko arauak akats zuzendu ezinak baditu, esleipenaren prozeduran atzera egin dezake. Bietan ere, hautagai edo lizitatzaileari agiri honen karatulan zehaztutako ordaina emango zaio.

4.- Esleipenak arrazoitua izan behar du, izangaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailean profilean argitaratuko da (http://www.gipuzkoa.eus ).

5.- Edozein eratara, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 156.3 artikuluaren arabera kontratua zer epetan sinatu behar da adieraziko da jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean.

6.- Aurkeztutako eskaintza guztiak artxibatuko dira espedientean, bai onartuak, bai ireki gabe baztertuak, bai ireki ondoren baztertuak. Dokumentazioa gutxienez hiru urtez gorde beharko da, kontratua esleitzen denetik kontatzen hasita. Administrazioak bere esku izango du lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa desegin ahal izatea, baldin haiek jaso ez badute aipatutako hiru urteko epe hori igaro ondoren.

## 17.-KONTRATUA FORMALIZATZEA

1.- Kontratua agiri administratiboan sinatuko da.

2.- Kontratua, sinatzen denean betetzen da.

3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipendunaren ordezkariak zera aurkeztu beharko dio Kontratazio Organoari:

- Bere identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten agiriak.
- Lizitazioko iragarkiak ordaindu dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Esleipenduna aldi baterako enpresa batasuna baldin bada, batasunaren eraketaren eskritura publikoa, batasunari eman zaion IFK eta botere nahikoaz hornitutako ordezkariaren izendapena.

4.- Kontratazio alorrean errekurtso berezia jartzeko aukera baldin badago, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 40.1 artikuluaren arabera, kontratua ezingo da sinatu harik eta lizitatzaileei eta izangaiei esleipenaren jakinarazpena igortzen zainetik 15 egun baliodun iragan arte. Kontratua formalizatzeko sinatzeko, kontratazio organoak gehienez bost egun naturaleko epea emango dio esleipendunari, esleipendunak errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako epea iragan bada eta kontratuaren sinadura etetera behartzen duen errekurtsorik ez bada jarri. Berdin jokatuko du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

Gainerako kasuetan, kontratua sinatuko da, beranduenez, lizitatzaileek eta izangaiek, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 151.4 artikuluaren arabera, esleipenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik hamabost egun baliodunen barruan.

5.- Kontratua sinatzeko ekitaldi berean, esleipendunak sinatuko ditu, kontratuarekin batera, obra unitateak osatzen dituzten oinarrizko materialen azalpena dakarren memoria; planoak; baldintza teknikoen agiriak eta proiektuaren aurrekontuko prezio taulak; eta baita baldintza administratiboen agiri hau ere. Agiri horiek guztiek kontratu izaera dute eta sinatzaileak egiaztatzen du, bere sinaduraren bidez, ezagutzen dituela eta horiekin ados dagoela.

6.- Esleipendunari egozgarriak zaizkion arrazoiengatik, ez bada kontratua adierazitako epean sinatu, Administrazioak, eskatu duen behin-behineko bermearen zenbatekoa, eskatu badu, behin betiko bermearen gainean konfiskatzea adostu ahalko du.

Kontratua ez sinatzeko errua Administrazioarena bada, kontratistari berandutzeak eragindako kalteen ordaina emango zaio.

7.- Esleipendunak ezin du kontratua betetzen hasi sinatuta dagoen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 112 eta 113. artikuluetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, eta hori ezinbesteko baldintza da edozein ordainketa bideratzeko.

8.- Kontratua sinatu dela emango da jakitera Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## III. kapitulua KONTRATUA GAUZATZEA

### 18.-OBREN ZUZENDARITZA

1.- Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiaren zuzendaritzapean gauzatuko dira lanak, eta horrek bere langileen artean kontratuaren zuzendaria izendatuko du, Administrazioaren lan hori egiteko, titulazio egokia eta nahikoa izango duena, eta zuzenean arduratuko da kontratua behar bezala gauzatzeko egiaztaketa, koordinazioa eta zaintza egiteaz.

2.- Kontratua gainbegiratzeko eta prestazioa bermatzeko ardura duen pertsona edo entitateak (kontratazio organoak izendatuko du) jarraipena egingo die, kontratuari jarraikiz, enpresa edo entitate esleipendunak bere gain hartutako kontratu betekizunei.

3.- Kontratuaren pertsona edo entitate arduradunak 2014ko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauan (erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa) aurreikusten diren betekizunen balizko arau-hausteen berri emango dio kontratazio organoari; eta, behar izanez gero, zigorrak ezartzeko prozedura edo kontratua suntsitzeko prozedura hastea proposatuko du.

4.- Kontratuaren zuzendariaren adierazpenek ezingo dituzte Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetako klausulak aldatu, ezta onartutako Ezaugarri Teknikoen Agirikoak ere, baina interpretatu eta argitu, bai.

### 19.-KONTRATUKO EPEAK

1.- Lanak agiri honetan finkatutako epeetan hasi, gauzatu eta amaitu beharko dira.

2.- Non eta Administrazioak berariaz beste egun bat jartzen ez duen, kontratua sinatu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen epeak, Ezaugarri Teknikoen Agirian ezarritako gauzatze epeak eta lehentasunak betez.

3.- Administrazioak kontratua proposamen onenari esleitzeko ematen duen ebazpenean finkatuko ditu kontratuko epeak, bai amaitzeko epea, baita hautatutako eskaintzaren arabera ateratzen diren epe partzialak ere.

4.- Kontratuko epeak Administrazioak gerora emandako ebazpenen bidez bakarrik aldatu ahal izango dira.

### 20.-LAN PROGRAMA

1.- Kontratista behartuta dago hilero hilaren lehen bost egunen barruan kontratuaren zuzendariari idatziz azaltzera, oro har nola doazen egin beharreko lanak eta nola ari den betetzen onartutako lan programa. Txosten hori aurkeztea nahitaezko betekizuna izango da, hileko ziurtagirien konturako ordainketak zuritzeko.

2.- Zuzendaritza lanetarako, kontratistak zuzendariari lan programa bat aurkeztuko dio, non lanaren faserik esanguratsuenak burutuko diren epe partzialak zehaztuko diren.

### 21.-KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK

1.- Kontratua esleitzen zaion enpresak, kontratuan aurreikusitako epeetan burutu eta eman beharko dizkio Foru Aldundiari hitzartutako lanak.

2.- Obrak egiterakoan, zorrotz jarraitu behar zaie onartutako Ezaugarri Teknikoen Agiriari, aplikagarriak diren arau orokorrei, eta baita kontratatutako lanen izaeragatik dagozkion arau teknikoei ere. Era berean, kontratua gauzatuko da kontratua interpretatzeko kontratazio organoak kontratuaren zuzendariaren bitartez kontratistari emandako jarraibideen arabera.

3.- Esleipendunarena izango da gauzatzen dituen lanen, eta egindako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, bai eta kontratua gauzatzerakoan Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat huts, metodo desegoki edo konklusio okerretatik sortzen diren ondorioena ere.

4.- Kontratistak isilik gorde behar ditu kontratuaren xedearekin lotura duten eta kontratua egin duelako jakin dituen datu eta aurrekari guztiak, edonorentzat jakinak edo nabariak ez badira (Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 112.2 artikulua). Beraz, inori ezin dio eman kontratuaren xedeari buruzko informaziorik, ezta helburu horrekin informazio hori eskuratzen utzi ere, baldin eta Administrazioak aldez aurretik horretarako baimena eman ez badio.

5.- Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera egingo da.

6.- Enpresa esleipendunak kontratuaren bidez eskuratzen dituen izaera pertsonaleko datuak ezingo ditu, kontratuan azaltzen diren helburuetarako ez bada, aplikatu edo erabili, ezta beste pertsona batzuei kontserbatzeko utzi ere.

7.- Gainera, lantalde eta langile egokiekin egin behar ditu lanak, eta kontratua gauzatzeak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun.

8.- Kontratistak aseguru kontratu bat eduki beharko du kontratua burutzeko epe osoan (luzapenak barne) eta bermealdian (gehikuntzak barne), kontratua burutzetik erator daitezkeen kalteen erantzukizuna estaltzeko; besteak beste, berariaz adieraziko da zein diren aseguratuak, gutxieneko estaldurak, bermatutako zenbatekoak eta epeak; halaber, agiri honen “Ezaugarrien taulan” jasotako zenbatekoak bermatuko ditu aseguruak (lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZa barne). Hori dena kontratua sinatu eta gehienez hilabete batean egiaztatu beharko du, jatorrizko poliza eta dagozkion primen ordainagiriak aurkeztuz edo aseguru etxearen ziurtagiri egokiak aurkeztuz. Atal honetan aipatu den edozein eskakizun ez egiaztatzea kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, betebehar hau, izatez, kontratuaren funtsezko betebehar bat delako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 223. f) artikuluan aurreikusita dagoenez.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunaren gain joango dira aseguru polizetan ezarrita egon litezkeen frankizien ordainez edo polizaren mugak gainditzen dituzten kalte eta galeren ordainez ordaindu beharreko zenbateko guztiak, baita aseguru polizetan estali gabeko ondasunei eta arriskuei legozkiekeenak ere.

9.- Kontratistaren eginkizuna da esleitu zaion lana egiteko behar duen informazioa eta baimen edo lizentzia ofizial nahiz partikular guztiak eskuratzea.

10.- Kontratistari dagokio, era berean, kontratua betetzeak ekar ditzakeen kanon, ordain nahiz kalte-ordain guztiak ordaintzea, bai eta informazio publiko nahiz pribatua argitaratzea badakar, horren gastua ere.

11.- Administrazio publikoen jarduketekin koordinatzeko behar diren datuak eta beste zerbitzu batzuen gaineko atxikipenei buruzkoak kontratistaren lantaldeak jaso behar ditu. Administrazioak, halaber, ukitutako erakundeekiko kudeaketa ofiziala erraztuko du.

12.- Enpresa kontratistaren betebeharra da Administrazioari jakinaraztea bere nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa, eta dagozkion fakturak ordaintzeko aurreikusitako legezko epea eten egingo da datuak egiaztatu arte.

## 22.-BETEBEHAR SOZIAL BATZUK

1.- Esleipen hartzaileak prestazioa egiterakoan lan merkatuan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharko ditu, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerakoak aurreikusitakoaren arabera.

Neurri horien artean dago, nahitaez, berdintasun plan bat egitea eta aplikatzea, betiere enpresak aurretik halakorik ez badu, 250 langile baino gutxiago dituelako eta, beraz, horretara behartuta ez dagoelako, 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Berdintasun planak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko jarduketak aurreikusi ditzake, besteak beste, ondorengo arloetan: Okupazioan, sustapen eta prestakuntzarako aukeretan; sailkapen profesionalean; ordainsarietan; bizitza pertsonala, familiakoa eta lana bateragarri egiteko lanaldiaren antolaketan; eta jazarpen sexualari eta sexu arrazoiarengatikoari aurrea hartzeko zereginean.

Kontratuaren exekuzio esparruan egin behar da plana, aipatu lege organikoan ezarritako edukiarekin.

Eusko Jaurlaritzaren 2014ko otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan jasotako «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitorpena eskuratu izanak balioko du egiaztatzeko kontratistak erakundean baduela eta aplikatzen dela berdintasun plan bat.

Administrazio kontratatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari aitorpen horren erabilpen-baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

2.- Kontratistak, edo azpikontratistak, kontratu honi atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lana elkarren artean bateragarri egitea ahalbidetzeko neurriak ezarri behar ditu.

3.- Esleipendunak bermatuko du behar adina neurri hartuko dituela sexu jazarpena eta sexua dela-eta laneko jazarpena prebenitzeko, baldin eta kontratua gauzatzeko 10 langile baino gehiago behar badira.

4.- Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpi-kontratistak desoreka badauka emakumeen eta gizonen artean, kontratua gauzatzeko, eta gauzatzen den aldi osorako, emakumea kontratatu beharko du edo, behintzat, emakume bat aldi baterako kontratatuta badu, mugagabe kontratatu beharko du. Langile talde desorekatua izango da langile guztien artean emakumeak % 40 baino gutxiago badira.

5.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

## 23.-KONTRATISTAK LAN, GIZARTE SEGURANTZA ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK

1.- Kontratistak lan, gizarte segurtasun eta laneko segurtasun eta osasun arloetako lege xedapen guztiak bete behar ditu, eta berak izango du gerta litezkeen lan istripuei dagokien erantzukizun guztia. Kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen.

Bereziki, enpresa edo entitate kontratistak hainbat lan baldintza aplikatuko dizkie kontratua gauzatuko duten langileei, zehazki, enpresa kontratistaren jarduera kokatuta dagoen sektorearen maila txikieneko esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak, betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoa.

Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratistak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Enpresa edo entitate esleipendunak, kontratazio organoaren aurrean, aipatutako betebeharrak egiaztatu ahal izateko, gizarte segurantzako betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa eta kontratua gauzatzeko lanei

lotutako langileen kontratuak formalizatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko ditu, gutxienez, eta, halaber, laneko segurtasun eta osasun arloko baldintzei buruzko agiri hauek prestatu beharko ditu: lan arriskuen prebentzioaren arloko plana, laneko segurtasun eta osasunerako arriskuen ebaluazioa eta prebentziozko jardueraren plangintza.

2.- Aurreko atalean aurreikusitako gauzatze faseko baldintza bereziak jasotzen duenez, enpresa edo entitate esleipenduna behartuta egongo da azpikontratatzen dituen enpresei betekizun horiek betetzen dituztela eskatzera. Beraz, entitate kontratatzaileak eskatuta, enpresa edo entitate esleipenduna behartuta egongo da azpikontratatutako enpresak edo entitateak aipatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatzera.

Zehazki, aipatutako dokumentazioan betekizun hauek ezarriko dira, agiri honen 39. klausulako 8. atalean ezarritakoa eragotzi gabe:

a) Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, azpikontratatutako enpresa edo entitateko langileen gizarte segurantzako afiliazioa eta alta egiaztatu beharko dira, eta informazio hori kontratazio organoari jakinarazi beharko zaio.

b) Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, araudi aplikagarriaren araberako lan kontratuen formalizazioa egiaztatu beharko da, eta informazio hori kontratazio organoari jakinarazi beharko zaio.

3.- Gainera, enpresa esleipenduna behartuta egongo da kontratua gauzatzera bideratzen dituen langileen arteko % 30ek kontratu finkodunak izatera; ekonomia sozialeko enpresa bada, ehuneko hori langile bazkideena izango da, baldin eta kontratuaren ezaugarriek aukera ematen badute.

4.- Kontratazio organoak edonoiz eskatu ahal izango dio kontratistari erakuts ditzala betekizun horiek egiaztatzen dituzten dokumentuak; orobat, jarraipen bilerak edo aldizkako ebaluazio txostenak eska ditzake, betiere betekizun horiek betetzen direla zaintzearren.

Atal honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak esleipen hartzailearen kontura izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

5.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

## 24.-KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

1.- Kontratuak hirugarrenei edo, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea edo horiekin harremanak izatea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden pertsonek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz ez bada hizkuntza aukerarik egin, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko ditu enpresa esleipendunak pertsona fisiko eta juridikoei zuzentzen dizkien edonolako jakinarazpen eta komunikazio guztiak, fakturak eta bestelako merkataritza dokumentuak barne, nahiz eta herritarrek noiznahi erabil dezaketen hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta beraiekin hizkuntza ofizialetako bat bakarra erabiltzeko eskatu.

2.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria, eta hauek arautua: Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan, euskararen erabilera normalizatzeko 2013-2017 aldirako plana.

3.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

## 25.-KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du kontratazio publikoaren inguruko jarduketetan balore etikoak eta jokabide arauak sartzea, baita kudeaketa onaren printzipioa eta jarduera profesionaleko arauak ere.

2.- Hori guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE Direktibak, kontratazio publikoarenak, 16. kontuan-hartuzkoan aurreikusitakoari jarraituz; izan ere, botere publikoek ahal dituzten bitarteko guztiak erabili behar dituzte kontratazio publikoen prozeduretan interes gatazkak saihesteko. Eta zehazki adierazten du "horretarako, gatazka interesak atzeman, ekidin eta konpontzeko prozedurak erabili ahal izango direla".

Horrenbestez, prozedura honen zuzentasuna bermatzeko, IV.eranskin gisa jaso da "Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua"

3.- Kode hori funtsezko obligazioa da, eta, beraz, derrigor bete behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako lizitazioetara aurkezten diren enpresa eta erakundeek, eta baita esleipendunek ere. Kodea betetzen ez bada, kontratazio organoak kodea urratzen duen jarduera hori egin duen enpresa edo erakundea prozeduratik kanpo utzi dezake, edo, hala badagokio, kontratua suntsiarazi dezake, erruzko ez betetzeagatik, legeak horretarako ezartzen dituen ondorioekin.

4.- Kontratua suntsiarazi ezin denean, zigorra jarriko da; horretarako, jokabide kodea ez betetze arau-hauste larri gisa tipifikatuko da, eta arau-hauste horri dagokion zigorra kontratuaren aurrekontuaren %10 izatera irits daiteke.

5.- Zigorrak jartzeko prozedurak kontuan izango ditu kontraesanaren printzipioa eta mailaketa printzipioa, proportzionaltasunaren eta kasuan kasuko egoera kontuan hartuta.

## 26.-LANGILEAK ETA LANTALDEA

1.- Kontratistak lantalde eta langile egokiekin egin behar ditu obrak, eskaintzak jasotzen dituen bitartekoak barne, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun.

2.- Zehazki, bere kontura aurreikusi behar du proiekturako eta obrarako beharko duen laguntza tekniko guztia, lan eta espezialitate bakoitzak eskatzen dituen premiei ondo erantzuteko gai izango dena.

3.- Obrako gai edo punturen bat bereziki zaila edo kritikoa delako espezialista arduradunen bat izendatu behar bada obra zuzendariaren ustez, Bidegik horretara behartu dezake kontratista. Era berean, kontratistari eska diezaioke errendimendu desegokia duten langileak aldatzeko edo ordezkatzeko.

4.- Kontratistak enpresari atxikitako langileetatik lan honetarako zeintzuk izendatuko dituen adieraziko du, Administrazioak ezartzen dizkien eskakizunak bete beharko dituztela kontuan hartuta. Esleipenduna behartuta dago, agiri honetan aipatzen diren lanak egiteko, bere eskaintzan izenez aipatutako teknikariak eta beste langileak atxikitzera, bertan zehazten den dedikazioarekin. Ondorioz, kontratuak irauten duen bitartean, dedikazio osoarekin izendatutako langileek ezingo dute beste ezertan lan egin. Era berean, kontratistak ezingo ditu eskaintzan adierazitako langileen ordez beste batzuk jarri, kontratuaren zuzendariaren baimenik gabe.

5.- Eskaintzan jasotako langile teknikoak ordezteko Zuzendaritzaren onarpena beharko da eta horretarako, hala eskatuz gero, izendatu nahi diren pertsonen curriculuma aurkeztu beharko zaio aurrez.

6.- Kontratista esleipen hartzaileak ezingo ditu eskaintzan proposatutako laguntzaileak alboratu, ez eta horien ordez beste batzuek jarri ere, lanen zuzendaritzaren onarpenik gabe.

7.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar bat ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta hura ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoak, osoki edo zati batean, kenduta ordainduko dira; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

## 27.-BITARTEKO TEKNIKOAK

1.- Kontratistak bere eskaintzan aipatutako bitarteko materialak jarriko ditu eta, oro har, obrak ondo egiteko behar diren guztiak.

2.- Esleipendunak bere eskaintzan sartutako bitarteko teknikoak aldatu ahal izateko, proposamen arrazoitu bat aurkeztu beharko du, eta Administrazioaren onarpena behar du.

3.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar bat ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta hura ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoak, osoki edo zati batean, kenduta ordainduko dira; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

## 28.-BAIMENAK

1.- Obrak egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea kontratistaren erantzukizuna eta kontua da, eta haien gaineko eskumena dutenek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bete behar ditu bere kontura. Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat badakar, horiek ordaintzea edo gordailuak egitea ere kontratistaren kontua izango da.

2.- Baimenak eman behar dituena Foru Aldundia bera izan arren, berdin-berdin dauka kontratistak beharrezko diren baimenak eskatzeko eta lortzeko betebeharra.

## 29.-ADMINISTRAZIO KONTRATATZAILEARENTZAKO LAGUNTZA

Kontratistak administrazio kontratatzaileari eskuragarri jarriko dizkio, dagokionean, eta gastu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko beharrezko jotzen diren zerbitzu profesionalak, hala nola, azalpen bileretara joatea, jendaurrean jartzea eta abar.

## 30.-EPEAK BETETZEA ETA BERANDUTZA ZIGORRAK

1.- Lanak agiri honen 4. eta 19.- klausuletan zehaztutako epeetan hasi, egin eta amaitu beharko dira.

2.- Kontratista bere erruz berandutzen bada epeen betekizunean (totalak edo partzialak), Administrazioak - epeen betekizunak duen funtsezko izaera kontuan hartuta– erabaki dezake, kontratua suntsitzea, edo baldintza administratibo berezien agiri honen hasieran dagoen ezaugarrien taulan aipatzen diren zigorrak ezartzea, bata nahiz bestea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 212. artikuluan xedatutako eran eta baldintzetan, eta kasu honetan, kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen den epearen luzapena baimentzea.

3.- Kontratistak behar baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak, kontratuan zehaztutako epeen barruan gauzatzeko, baina ezingo du hori egin desegokia dela uste izateko arrazoirik ikusten badu Administrazioak.

4.- Kontratuak prezioen berrikuspenari buruzko klausula baldin badauka, eta epea ez betetzeko errua kontratistarena bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 93. artikuluan xedatutako eran jokatuko da.

5.- Bermea galtzeak edo zigorren zenbatekoa ordaintzeak ez du eragozten kontratistaren berandutzak eragindako kalte eta galerengatik Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko izan lezakeen eskubidea.

6.- Atzerapena ez bada kontratistaren erruz gertatu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 213.2 artikuluan xedatutako eran jokatuko da.

7.- Nolanahi ere, kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurreko eskaera edo errekerimendua egitea.

8.- Berandutza zigorren zenbatekoa aurkeztutako ziurtapenetatik edo ordainketa agirietatik kenduko da eta, bestela, bermetik, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 212. artikuluan.

## 31.-BESTE ZIGOR BATZUK

Kontratistak ez badu ondo gauzatzen kontratuaren xedea, ondo gauzatzeko behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak jartzeko konpromisoa ez badu betetzen, eskaintzak baloratzeko oinarritzat hartu ziren irizpideetakoren bat ez badu betetzen edo, bere erruz ez baditu gauzatzen osorik kontratuan definitutako lan guztiak, orduan kontratazio organoak erabaki dezake urraketaren proportzioan egongo den zigor ekonomiko bat jartzea, kontratuaren aurrekontuaren % 10era hel daitekeena.

## 32.-KLAUSULA SOZIALAK EZ BETETZEAREN ONDORIO JURIDIKOAK

1. Baldintza administratibo berezien agiri honetan exekuzio baldintza berezi moduan ezarritako betebeharren ez betetzeak arin, larri edo oso larritzat joko dira, isunak jartzeari begira.

1.1. **Lan arloko, gizarte segurantza arloko eta laneko segurtasun eta osasun arloko betebeharren ez betetzeak honela kalifikatuko dira:**

1.1.1. Ez betetze arinak izango dira:

a) Langileari idatziz ez jakinaraztea kontratuaren oinarrizko osagaiak eta lan-prestazioa betetzeko baldintza nagusiak, dagokion araudiak ezarritako modu eta epeetan.

b) Enpresan dauden lanpostu hutsen berri ez ematea lanaldi partzialeko langileei eta iraunaldi zehatzeko kontratuak edo aldi baterakoak dituztenei.

c) Lan istripuen eta deklaratutako laneko gaixotasunen berri ez ematea lan agintaritza eskudunari garaiz eta dagokion moduan, istripu edo gaixotasun horiek arintzat jotzen direnean.

d) Enpresako zerbitzua uzten duten langileen bajak edo haiengan eragina duten bestelako aldaketak garaiz eta forma egokian ez jakinaraztea.

e) Aldi baterako ezintasunen baja, baja-berrespen edo altari buruzko mediku agirien kopiak ez bidaltzea dagokion entitateari.

f) Betebehar formalak edo agirizkoei eragiten dien gainerako ez betetzeak.

1.1.2. Ez betetze larriak izango dira:

a) Lan kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori legez bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.

b) Kontratu motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, kontratu mota ezberdinak lege-iruzurrez erabiliz.

c) Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor eta baimenei buruzko arauak eta legezko nahiz hitzarturiko mugak urratzea.

d) Enpresaburuak bere kasa funtsezko lan baldintzen aldaketa inposatzea, legez ezarritako prozedurak jarraitu gabe.

e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan baldintzak baino txarragoak ezartzea, eta, orobat, Langileen Estatutuaren Legearen 4. artikuluan langileei aitortutako eskubideen kontrako egintzak nahiz ez-egiteak burutzea, oso larritzat jo ez badira.

f) Laneko segurtasun eta osasun plana ez egitea lan arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako edukiarekin, bereziki ez denean jaso obrako langileen segurtasun eta osasunari eragiten dieten berariazko arriskuei moldatutako eduki erreal eta egokia, edo ez denean plana egokitu langileari eragiten dioten jarduera, prozedura edo ingurunearen ezaugarri berezietara.

g) Laneko segurtasun eta osasun planaren jarraipena egiteko betebeharra ez betetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako modu eta edukiarekin.

h) Indarrean dagoen araudiaren araberako mediku azterketak eta langileen osasun egoera aztertzeko aldizkako zainketa probak ez egitea, edo haien emaitzen berri dagokien langileei ez ematea.

i) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, ez betetzea oso larritzat jotzen denean izan ezik.

j) Lan istripuen eta deklaratutako lanbide gaixotasunen berri garaiz eta forma egokian ez ematea lan agintaritzari, indarrean dauden xedapenen arabera, horiek larri, oso larri edo hilgarri kalifikazioa dutenean, edo ikerketarik ez burutzea langileen osasunari kalterik eragin zaionean edo prebentzio neurriak nahikoak ez direla susmatzeko zantzuak daudenean.

k) Lan arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzea, ez betetzea arin edo oso larritzat jo denean izan ezik.

l) Lantokiaren edo langunearen garbitasun eza, ohikoa denean edo langileen osotasun fisikorako eta osasunerako arriskurik dakarrenean.

m) Langile berrien hasierako afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo epez kanpo eskatzea, ikuskapen jarduketa baten ondorioz. Kasu horretan dagoen langile bakoitzeko ez betetze bat eman dela ulertuko da.

n) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak dagokion modu eta epeetan ez ordaintzea, edo dagokion diru-sarrera behar den zenbatekoan ez egitea, kotizazio agiriak aurkeztuta, betiere diru sarrera ez egitearen arrazoia enpresaren konkurtso deklarazioa ez bada, edo ezinbesteko kasua, edo ez bada eskatu kuotak ordaintzeko epearen atzerapena inspekzio jarduna hasi aurretik eta, ezezko ebazpenik ez bada eman.

1.1.3. Ez betetze oso larriak izango dira:

a) Langileari zor zaion soldata ez ordaintzea edo ordainketa atzeratzea behin eta berriro.

b) Enpresak bere kasa hartzen dituen eta diskriminazio zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten erabakiak: Adina edo desgaitasuna dela-eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; ordainsari, lanaldi, prestakuntza eta gainerako lan baldintzak direla-eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; eta jatorria, arraza edo etnia barne, egoera zibila, gizarte maila, erlijio edo sinesteak, ideia politikoak, sexu joera, sindikatuei eta sindikatuen erabakiei atxikitzea edo ez atxikitzea, enpresako beste langile batzuekin ahaidetasun lotura izatea edo hizkuntza dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak

c) Enpresak bere kasa hartzen dituen erabakiak, langileei kalte eginez, baldin eta erabaki horiek tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa bete dadila galdatzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurrean edo administrazio akzio zein akzio judizial baten aurrean erreakzioz hartuak badira.

d) Enpresak langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak ez betetzea pentsio planak eta pentsio funtsak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.

e) Lan arriskuen prebentziorako araudia bete gabe egiten diren lanak berehala ez geldiaraztea edo geldieran ez uztea, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak errekerimendua egin duenean, eta lan horiek, Ikuskatzailetzaren iritziz, langileen segurtasun eta osasunerako hurbil-hurbileko arrisku larria dakartenean berekin, edo lanei berriz ekitea geldiarazteko arrazoiak aurrez zuzendu gabe.

f) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, bai eta langile horiek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean dituzten lanbide gaitasunak kontuan izan gabe lanean jardutea, egoera horiek langileen segurtasun eta osasunerako hurbil-hurbileko arrisku larria eragiten dutenean.

g) Prebentzio baliabideen presentzia eza, legez nahitaezkoa denean, edo haien presentziak dakartzan betebeharrak ez betetzea, dagokion araudian arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotako jarduerak direnean.

h) Honako alderdi hauek ez egiaztatzea, dagokion araudiak ezarritako moduan: Enpresa azpikontratatuek zuzendaritza nahiz produkzioan lan arriskuen prebentzioko prestakuntza duten langileak badituztela, prebentzio antolamendu egokia badutela, eta dagokion erregistroan inskribatua daudela.

i) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzean lan baldintzei aplika dakiekeen beste edozein neurri hartu ez izana, baldin eta horien ondorioz langileen segurtasun eta osasunerako arrisku hurbil-hurbileko eta larria eragiten bada.

j) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ez ordaintzea, dagokion epe eta moduan, kotizazio agiriak ez direnean aurkeztu.

k) Kotizazio-agirietan edo bestelako agirietan datu faltsuak edo okerrak deklaratzea edo agerraraztea iruzur eginez, betiere kuotetan eragina badute.

l) Lana ematea kontratuak esekita edo lanaldia murriztua duten langileei, kontratuak esekita dauden bitartean, edo lan agintaritzari edo langabezia prestazioak kudeatzen dituen entitateari jakinarazitako lanaldi murriztutik kanpo.

m) Langileei deskontatutako Gizarte Segurantzako kuota zatia epean ez ordaintzea eta harekin geratzea, edo legez dagokiona baino deskontu handiagoa egitea.

1.2. **Azpikontratazio arloko betebeharren ez betetzeak honela kalifikatuko dira:**

1.2.1. Ez betetze arinak izango dira:

a) Azpikontratazioaren Liburua ez izatea, eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen araudiak ezarri moduan.

b) Enpresak kontratistak ez egiaztatzea enpresa azpikontratatua erabiltzen ari den makinen edukitza egiaztatzen duen agiri edo tituluak, edota indarrean dauden legeek eskatzen duten gainerako informazioa.

c) Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari ez jakinaraztea Azpikontratazio Liburuan jasotako edozein azpikontratazio.

1.2.2. Ez betetze larriak izango dira:

a) Eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen Legeak eskatzen duen Azpikontratazio Liburua ez izatea, edo modu ordenatuan eta egunean ez eramatea, dagokion araudian ezarri moduan.

b) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratatuek badituztela, bai zuzendaritzan, bai produkzioan, laneko arriskuen prebentzio arloan prestatuta dauden langileak, edota badutela prebentzio antolaketa egokia.

c) Oro har, kontratua gauzatzen den bitartean ez egiaztatzea enpresa azpikontratatuek betetzen dutela azpikontratazioari buruzko klausula, baldin eta ez betetzeak ez badira ez betetze arin edo oso larritzat jo.

d) Kontratua gauzatzean, legez ezarritako mugak gainditzen dituen azpikontratista edo langile autonomo kopurua jardutea obran, betiere obra zuzendaritzaren berariazko baimena izan gabe, baldin eta ez betetzea oso larritzat jo ez bada.

e) Langileen ordezkariei egindako azpikontratazioak ez jakinaraztea.

1.2.3. Ez betetze oso larriak izango dira:

a) Kontratua gauzatzean, legez ezarritako mugak gainditzen dituen azpikontratista edo langile autonomo kopurua jardutea obran, betiere obra zuzendaritzaren berariazko baimena izan gabe, baldin eta arriskuei buruzko araudiak lan horiek arrisku bereziak dituzten lantzat jotzen badituzte.

b) Langileen lagapena indarrean dagoen legedia urratuz.

c) Kontratuaren zati bat kontratatzea ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeko ezgaitua dagoen pertsona batekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 60 artikuluko egoeratako batean dagoen pertsona batekin.

d) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratistak kontratu mugagabearekin izan behar duen gutxieneko langile portzentajea baduela, betiere eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen araudiarekin bat.

1.3. **Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ezarritako betebeharren ez betetzeak honela kalifikatuko dira:**

1.3.1. Ez betetze arina izango da kontratazio organoaren aurrean ez aurkeztea kontratuaren exekuziori egokitutako berdintasun plana, plana aurkeztea badagokio.

1.3.2. Ez betetze larriak izango dira:

a) Kontratuaren exekuzioari egokitutako berdintasun plana ez egitea, plana egitea badagokio.

b) Kontratuaren exekuziori begira egindako berdintasun planeko neurriak ez betetzea modu sistematiko batean.

c) Neurririk ez ezartzea kontratuari atxikita dauden langileen lana eta bizitza pertsonala edo familiakoa bateragarri egiteko.

d) Lanek iraun artean emakume bat ere gutxienez kontratatu ez izana edo emakume baten aldi baterako kontratazioa mugagabe bihurtu ez izana, baldin eta kontratua burutzeko beharrezkoa balitz langileren bat kontratatzea eta enpresa kontratistak kontratuari atxikita duen plantillan emakume eta gizonezko kopurua ez balitz orekatua.

1.3.3. Ez betetze oso larria izango da sexu arrazoiengatiko jazarpena egitea enpresa zuzentzeko ahalmenak baliatuz, edozein dela ere jazarpenaren egilea.

2. Exekuzio baldintza berezi moduan ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, azpikontratazioari buruzko klausulako 1 zenbakiko kasuan izan ezik, honako isun hauek jarriko dira, betiere kontratua suntsitzea ez badagokio:

2.1. Ez betetze arinengatik kontratuaren prezioaren % 4 gaindituko ez duen isuna jarriko da.

2.2. Ez betetze larriengatik kontratuaren prezioaren % 4 baino isun handiagoa jarriko da, baina prezio horren % 7 gainditu gabe.

2.3. Ez betetze larriengatik kontratuaren prezioaren % 7 baino isun handiagoa jarriko da, baina prezio horren % 10 gainditu gabe.

3. Isun horiek ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira edo, hala balegokio, eratutako bermetik, aipatutako ziurtapenetatik kendu ezin direnean.

4. Betebeharrek kontratuko funtsezko betebehar izaera izango dute horien ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan eta ez betetze horiek kontratua suntsitzea ekarri ahal izango dute.

## 33.-KONTRATUA BURUTZEA ETA KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

1.- Kontratistak kontratua bertako klausulen arabera burutuko du eta kontratuaren zuzendariak interpretatzeko emandako jarraibideekin bat etorriz.

2.- Kontratua esleipen hartzailearen arrisku eta benturan gauzatuko da.

3.- Kontratistak ezingo du inolaz ere bere eskaintzan zehaztutako prezioen igoera eskatu, ezta akatsa edo hutsegitea dagoenean ere.

4.- Kontratistaren erantzukizun izango dira: gauzatzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzerakoan, zuzenean nahiz zeharka Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat hutsegite edo hutsune, metodo desegoki edo ondorio okerretatik sortzen diren ondorioak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 305, 307, 310, 311 eta 312. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

5.- Agiri honetako 21.8.- klausulan ezarrita dagoen bezala, kalte eta galeren aurrean erantzun ahal izateko, enpresa esleipendunak indarrean izango du beti aseguru kontratu bat, obra kontratua indarrean dagoen bitarte guztian (luzapenak barne) eta berme aldian (luzapenak barne) ere bai, kontratua gauzatzeak ekar litzakeen arriskuen aurrean erantzukizuna bermatuko duena. Aseguru horrek estaliko duen gutxieneko zenbatekoa agiri honen hasieran dagoen “ezaugarrien taulan” lizitazioaren oinarrizko aurrekontu gisa, BEZa barne, zehazten dena izango da.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunaren gain joango dira aseguru polizetan ezarrita egon litezkeen frankizien ordainez edo polizaren mugak gainditzen dituzten kalte eta galeren ordainez ordaindu beharreko zenbateko guztiak, baita aseguru polizetan estali gabeko ondasunei eta arriskuei legozkiekeenak ere.

## 34.-KONTRATUA BESTERI LAGATZEA

1.- Esleipendunak kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste norbaiti laga ahal izango dizkio, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira erabakigarriak izan kontratua esleitzeko garaian.

2.- Esleipendunek bere eskubide eta betebeharrak beste norbaiti laga ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) – Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.

b) – Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatua izatea.

c) – Lagapen hartzaileak baldintza hauek bete behar ditu: Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna eta kasurako eskatzen den kaudimena izatea; behar duen sailkapena edukitzea, lagatzaileari eskatu bazaio; eta kontratatzea galarazten duten egoeretakoren batean ere ez egotea.

d) – Esleipendunaren eta lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

3.- Lagapen hartzaileak lagatzaileari dagokion eskubide eta betebehar guztiez jabetuko da, subrogazioz.

## 35.-AZPIKONTRATAZIOA

1.- Kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, betiere kontratuan edo pleguetan kontrakorik xedatzen ez bada, edo, kontratuaren izaeratik eta baldintzetatik ondorioztatzen ez bada kontratua esleipendunak berak egin behar duela zuzenean.

2.- Azpikontratistak kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko dituelarik baldintza administrazio berezien agiria eta kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak barne (3/2016 Legea, 2016ko apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa, 6. artikulua).

3.- Azpikontratuak egiteko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Lizitatzaileek bere eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duten, azpikontratazioaren ehunekoa eta lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta.

b) Betiere, esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi beharko dio Administrazioari azpikontratuak egiteko asmoa, zer lan zati azpikontratatu nahi den eta nori adierazita, eta behar adina egiaztatu behar du azpikontratistak lan horiek egiteko gaitasuna duela, haren esperientzia eta eskura dituen bitarteko teknikoak eta giza baliabideak kontuan hartuta. Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu. Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Proposatutako azpikontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 60. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak, azpikontratazioari buruzko agiriekin batera, nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunezko adierazpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

c) Eskaintzan adierazitakoa betetzen ez duten azpikontratuak (eskaintzan bertan adierazitako enpresariekin ez egiteagatik edo bertan jasotako prestazio zatiei dagokiena ez izateagatik) ezingo dira sinatu jakinarazpena egin eta b) puntuko zurigarriak aurkezten direnetik hogei egun natural igaro arte, baldin eta aurrez berariazko baimena jaso ez badute, eta betiere epe horretan Administrazioak ez badu azpikontratu horien aurka dagoela jakinarazten. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratistak, eskaintzan, lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

Kontratistaren ardurapean, azpikontratuak sinatu ahal izango dira hogei eguneko epe hori igaro behar izan gabe, baldin eta larrialdiko egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati aurre egiteko nahitaezkoa bada eta behar bezala arrazoitzen bada.

d) Izaera sekretua edo erreserbatua duten kontratuetan, edo lege zein erregelamenduzko xedapenen arabera kontratua segurtasun neurri bereziekin gauzatu behar denean, edota estatu segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean, azpikontratazioa egiteko kontratazio organoaren berariazko baimena beharko da beti.

e) Esleipendunak beste norbaiti azpikontratatutako lan zatiek ezingo dute gainditu baldintza administratibo berezien agirian ezartzen den portzentajea. Pleguan muga berezirik ez badago, kontratistak esleipen-zenbatekoaren 100eko 60 arte azpikontratatu ahal izango du. Gehienezko ehuneko hori zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko kontratista nagusiari lotutako enpresekin egindako azpikontratuak, hau da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuetakoren batean dauden enpresekin egindakoak.

4.- Aurreko paragrafoan azpikontratazioak egiteko ezarritako baldintzak urratuz gero, edo azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzen ez bada, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatzen ez badira, kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 50erainoko zigorra ezarri ahal izango zaio.

5.- Azpikontratistak kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko dituelarik baldintza administrazio berezien agiria eta kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak barne (2016ko apirilaren 7ko 3/2016 Legea, Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa, 6. artikulua).

Administrazioak azpikontratuak sinatu izanaren berri izateak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 227 artikuluko 2. ataleko b) eta c) hizkietan aipatzen diren jakinarazpenen bitartez, edo atal bereko d) hizkian aurreikusitako kasuan baimena eman izanak, ez dute aldatuko kontratista nagusiak erabateko erantzukizuna izatea.

6.- Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 60. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.

7.- Kontratistak langileen ordezkariei eman beharko die azpikontratazioaren berri, lan-legeriarekin bat etorriz.

8.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 228. artikulua eta merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen iragankorra bete behar da.

9.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak kontratazio organoari aurkeztu beharko dio azpikontratuaren dokumentua, eta dokumentu horretan ezarriko dira azpikontratatuak kontratua betetzeko dituen obligazioak eta ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.

10.- Aurreko 3. paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo

dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

11.- Administrazio kontratatzaileak egiaztatu ahal izango du kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zorrotz egiten dituela kontratistak.Kasu horretan, kontratistak Bide Azpiegituretako Departamentura bidali beharko du, hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda, xehetasun guztiekin, parte hartzea gauzatzen denean; bakoitzaren azpikontratazio edo hornikuntza baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordainketaren epearekin zerikusi zuzena dutenean. Gainera, Departamentuak eskatuz gero, egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, justifikatzeko ordainketak egin direla, prestazioa amaitu ondoren, legez ezarritako ordainketa epeen barruan, kontuan hartuta 228. artikulua eta, dagokionerako, 2014ko abenduaren 29ko Legea. Betebehar horiek ezinbestekotzat jotzen dira, eta ez badira betetzen, legediak ezarritako ondorioez gain, zigor hauek jartzeko aukera izango da: eguneko zigorrak, ordainketan atzeratzen den egun natural bakoitzeko 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko bakoitzagatik. Zigorrak ezingo du inola ere kontratuaren prezioaren % 10 gainditu.

## 36.-KONTRATUA ALDATZEA

1.- Kontratu administratiboak soilik aldatuko dira interes publikoaren onerako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak I. liburuko V. tituluan aurreikusitako kasuetan eta forman, eta Testu Bateratuko 211. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduko 102. artikuluan arautzen duen prozedurari jarraituz. Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat.

2.- Kontratu honen xede den obraren proiektu aldatuak edo osagarriak egin behar izanez gero, proiektu horiek kontratuaren xede bihurtuko dira, besterik gabe, baina ezingo da zenbatetsitako balioa gainditu, eta esleipendunak justifikatu beharreko partida altxatu bezala balioetsiko dira, 7.500 eurotan.

Aipatutako onarpenaren eraginez lanak egiteko epea luzatu behar bada, kontratuaren zenbatekoa handitu egingo da, gehieneko unitateko prezioa 60.000 euro/hileko (BEZik gabe), eskainitako beherapen ehunekoaren arabera, baina zenbatetsitako balioaren gehieneko aurrekontua gainditu gabe, betiere (471.517,44 euro, BEZik gabe).

3.- Kontratuaren xedean aldaketak sartzea beharrezkoa suertatzen denean, kontratuaren zuzendaritzak beharrezko proposamena idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratzen duten dokumentuekin batera. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, kontratistari entzunaldia eman beharko dio eta dagokion gastua fiskalizatu beharko da.

4.- Ez kontratistak, ez zuzendariak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioak eska lezakeen ardura eragotzi gabe, ezta 45. klausulan aurreikusitakoa ere, administrazioak behar bezala baimendutako aldaketak kontratuaren xedean, kontratistaren ardura ekarriko dute. Horrek aldaketak izan dituzten obrak berregin beharko ditu inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- Kontratuaren aldaketak formalizatzea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 156. artikuluan xedatu bezala egin behar da. Horretarako, hasierako kontratuaren gehigarri bat izenpetu behar dute bi aldeek.

## 37.-BALORAZIOAK ETA ORDAINKETAK

1.- Lanen balorazioa Administrazioen Kontratuko Erregelamenduen 199 eta 200. artikuluetan xedatutakoari eta agiri honetako 2.- klausulan zehaztutako prezioei lotuko zaio.

2.- Lanak ordainduko dira, lanen zuzendariak onespena eman ondoren, hilero egindako obren arabera eta honako bi baldintzak beteaz:

- Kontratuaren zenbatekoaren %9 prestatze lanak amaitzean ordainduko da
- Esleipen zenbatekoaren % 82 ordainduko da hileroko ziurtagirien bidez, obraren exekuzio ziurtagiriaren proportzioan.

- Gainerako % 9 ordainduko da obrako azken ziurtagiria igortzen denean eta oinarrizko kontratuaren likidazioarekin lotutako lanak aurkezterakoan.

3.- Administrazioak prezioa ordaindu behar dio kontratistari kontratuan esandakoarekin bat datorrela egiaztatzen duen agiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan; eta berandutzen bada, epe hori amaitzen denetik aurrera sortutako berandutza interesak eta kobraketa gastuen kalte-ordaina ere ordaindu beharko dizkio, 2004ko abenduaren 29ko Legeak, merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenak, adierazitako moduan. Interesak kobratzen hasteko epea hasitzat emateko, kontratistak erregistro administratiboan aurkeztuak izan beharko ditu fakturak, epe eta forma egokian, zerbitzua eman eta hogeita hamar eguneko epean.

4.- Ordainketa egiteko, kontratistak arauzko faktura aurkeztu behar du. Aurkeztutako fakturak beharkizunetakoren bat betetzen ez duela ikusiz gero, falta dena osatzeko eskatuko zaio, eta aurreko paragrafoan aipatutako epea ez da hasiko kontatzen, harik eta zuzenketa egin arte.

5.- Aurkezten diren fakturetan nahitaez adierazi beharko da kontabilitate publikoko gaietan organo administratibo eskuduna hau dela: Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiko Kontabilitate Zerbitzua. Kontratazio organoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua da, eta tramitazioaz arduratuko den unitate organikoa Bide Azpiegituretako Departamentuko Idazkaritza Teknikoa.

Era guztietara, kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen epea betetzen (hogeita hamar egun), interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, eta baldin eta, bitartean, administrazioak ontzat eman ez badu eta ordaindu ez badu.

Hala ere, kontratuan agintzen duten urtekoak baino zenbateko handiagoa eskatzen duten ziurtapenetan, legezko epea ez da kontatuko ziurtapena onartzen denetik aurrera, baizik eta hitzartutako baldintzen eta onartutako lan programen arabera izan beharko lukeen geroagoko dataren arabera.

6.- Kontratua sinatu artean ezingo da inolako ordainketarik egin.

7.- Kontratistak, legez ezarritako bideren batetik, beste norbaiti laga diezaioke kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, baina, lagapenak ondorioak izan ditzan eta Administrazioak lagapen hartzaileari ordaintzeko agindua eman dezan, Administrazioari modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen akordioa.

## 38.-LANEN GUTXIENEKO EDUKIA

Kontratu honek xedetzat dituen lanek Ezaugarri Teknikoen Agirian eskatutako jarduerak eduki beharko ditu eta han adierazitako alderdi guztiak jaso.

## 39.-LANAK EMATEA, AKATSAK ZUZENTZEA ETA ERANTZUKIZUNAK

1.- Kontratistak obrak jaso eta hilabeteko epean amaierako ziurtapenak prestatzeko agiriak utzi beharko ditu Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuan, (Miramon pasealekua 166, 1.solairua, Donostia). Kontratuaren zuzendaritzak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta, ezaugarri teknikoak betetzen direla jotzen badu, obren harrera egin dadila proposatuko du.

2.- Kontratuko ezaugarri teknikoak ez badira betetzen, edo hutsak edo gabeziak antzematen badira, idatziz emango zaizkio kontratistari huts edo akats horiek zuzentzeko jarraibide zehatzak. Idatzian bertan agertuko da horretarako ezarritako epea eta egoki ikusten diren oharrak.

3.- Kontratuaren zuzendariak egindako oharrei dagokienez kontratistak erreklamaziorik egiten badu, erreklamazioa -txostenarekin batera- kontratazio organoari igorriko dio kontratuaren zuzendariak, eta organo horrek hartuko du erabakia.

Kontratistak kontratuaren zuzendariak egindako oharrei dagokionez idatzizko erreklamaziorik egin ezean, ados dagoela ulertuko da eta, beraz, antzemandako akatsak zuzendu edo konpondu egin behako ditu.

## 40.-LANAK JASOTZEA, LIKIDATZEA ETA BERMEA ITZULTZEA

1.- Aurreko izapideak bete, kontratatutako lanak egin eta egiaztatu, eskatutako zerbitzu eta agiri guztiak entregatu eta exekuzioan akatsik ez dagoela ikusi ondoren, Administrazioak harrera egingo du, kontratuaren zuzendariak onespena eman eta gehienez hilabeteko epean, eta harreraren akta jasoko da.

2.- Egindako lanek jasotzeko baldintzak betetzen ez badituzte kontratistari egotzitako akatsen ondorioz, uko egin ahal izango zaio jasotzeari. Ordaintzetik libre geratuko da edo, hala badagokio, onartutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du, jarritako bermea galduz betiere.

3.- Berme epeak irauten duen artean, aurreikusiz gero, egiaztatzen bada lanetan akatsak daudela, kontratazio organoak akats horiek zuzentzeko eska diezaioke kontratistari.

4.- Berme epea amaitzean administrazioak ez badu zuzenketarik edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 307. artikuluan aipatutako salaketarik formalizatu, kontratistak ez du ardurarik izango emandako zerbitzuari dagokionean, testu bategin horretako 310, 311 eta 312. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta.

5.- Hilabeteko epean, jasotze akta egiten denetik hasita, kontratuari dagokion likidazioa onartu eta horren berri emango zaio kontratistari, eta haren alde geratzen den zenbatekoa ordainduko zaio. Ez da bermerik itzuli edo brtan behera utziko harik eta berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

6.- Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen 2014ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

## 41.-KONTRATUA SUNTSITZEA

1.- Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 223 eta 308. artikuluetan aurreikusitakoak, 225 eta 309. artikuluetan aurreikusitako ondorioekin, eta, aldi berean, kontuan edukita Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduak 109. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa. Obra proiektu bat egitea helburu duten kontratuetan aplikagarri izango da, baita ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 310. artikuluan aurreikusitako suntsitze arrazoiak, artikulu horretan bertan aurreikusitako ondorioekin.

2.- Gainera, kontratazio organoak kontratua suntsitu dezake lana egiteko ezarritako epe orokorrean edo partzialen batean berandutzen bada, edo epe partzialetan garaiz ez ibiltzeak epe orokorra ezingo duela bete pentsarazten duenean zentzuz, betiere kontratazio organoak ez badu erabakitzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 212. artikuluan xedatutako zigorrak jartzea.

Hala ere, atzerapen zigorra kontratuko prezioaren % 5aren multiplora iristen den bakoitzean, kontratazio organoak kontratua suntsitzea edo jarraitzea erabaki dezake, zigor berriak jarriz.

3.- Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da agiri honetan edo kontratuan funtsezko betebehar gisa ezarritakoak ez betetzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 223.f) artikuluan aurreikusitakoaren babesean; baita gizarte arloko klausulak ez betetzea ere, agiri honetan ez betetze larritzat jotzen denean.

4.- Kontratua suntsitzeko, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduko 109. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dira.

## 42.-LANAREN JABETZA

1.- Gipuzkoako Foru Aldundia izango da amaierako lanaren eta hartara iristeko egiten diren lan guztien jabe bakarra.

2.- Esleipendunak ezingo du ez beretzat erabili ez beste inori eman kontratatutako lanen daturik batere, ezta lan horien edukia argitaratu ere, ez osorik ez zati bat. Betebehar hori urratuz gero, bidegabeko jabetze bezala hartu eta haren aurka zigor bidetik jo ahal izango da.

Nolanahi ere, esleipendunak izango du debeku hori ez errespetatzeari zor zaizkion kalte eta galera guztien erantzukizuna.

## 43.-KONTRAESANAK

Proiektua osatzen duten agirien eta Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren artean kontraesanak egonez gero zehaztapen ekonomiko eta administratiboen inguruan, baldintza agiri honetan jasotakoek aginduko dute.

# IV. kapitulua KONTRATAZIO MAHAIA

## 44.-KONTRATAZIO MAHAIA

1.- Kontratu hau esleituko duen kontratazio organoari laguntzeko Kontratazio Mahai bat izango da, agiri honen hasieran dagoen ezaugarrien taulan ageri den bezala eratua, eta hark izango du eskaintzak baloratzeko eskumena.

2.- Kontratazio Mahaiak kontratuaren xedearekin lotutako txosten teknikoak eska ditzake, beharrezkoa iruditzen bazaio, bere proposamena egin aurretik.

3.- Kontratazio organoak kontratua esleitzeko erabakian ez badio jarraitzen Kontratazio Mahaiaren proposamenari, erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

4.- Kargua hutsik badago, edo titularra gaixorik edo kanpoan badago, arrazoi justifikaturen bat izanik, ordezkapen hauek ezartzen dira Kontratazio Mahaian parte hartzeko:

- Mahaiburua: Titularraren ordez, kide iraunkorrak arituko dira, agiri honen karatulan azaltzen den hurrenkera berberari jarraituz.

- Bokalak: Bokalen ordez, titularrak atxikita dauden zerbitzuetako edo kudeaketa unitateetako funtzionarioek jardungo dute, edo, hori ezin denean, titularren Zuzendaritzako beste zerbitzu batzuetako funtzionarioek; eta mahaiburuak izendatuko ditu.

- Idazkaritza: Kontratazio Zerbitzuari atxikitako funtzionario batek egingo du ordezkapena edo, bestela, Idazkaritza Teknikoari atxikitako batek, eta mahaiburuak izendatuko du.

# I. ERANSKINA ESKAINTZA EREDUA

**Aurkezlea**
Izena: ................................................................ Nortasun Agiria: .......................................
Helbidea: ..................................................................................................................................

**Ordezkatua**
Sozietatearen izena: ................................................................ Identifikazio Fiskaleko Kodea: .................
Helbidea: ................................................................ Telefonoa, faxa, helbide elektronikoa: .............................

AZALPENA

Lehenengo.- Ezagutzen dituela **“San Lorentzo-Larreko tuneleko Iruñeko noranzkoko hodian (AP-15 autobidea) estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko (2004/54/CE Direktiba) proiektuko obrak zuzentzea (3-IN-21/2017 DO)** kontratatzeko ezarriak dituen Ezaugarri Teknikoen eta Baldintza Administratibo Berezien Agiriak.

Bigarren.- Bere erantzukizunez adierazten du enpresa lizitatzaileak ez duela legearen arabera inolako eragozpenik Administrazioarekin kontratua egiteko, badituela lanak egiteko behar adinako lege gaitasuna eta bitartekoak eta betetzen dituela kontratu honetarako ezarrita dauden eskakizun espezifikoak.

Hirugarren.- Enpresa esleipendun gertatzen bada, bere eskaintzako baldintzetan eta onartutako proiektuko eta agirietako eskakizunak eta baldintzak zehatz-mehatz betez egingo dituela lanak.

Laugarren.- Berariaz adierazten du bere eskaintza prestatzerakoan kontuan hartu dituela enpleguaren babesaren, lan baldintzen eta laneko arriskuen prebentzioaren inguruko xedapenetatik eratorritako betebeharrak; bereziki, enpresa edo entitate kontratistak hainbat lan baldintza aplikatuko dizkie kontratua gauzatuko duten langileei, zehazki, enpresa kontratistaren jarduera sektorean dagoen hitzarmen kolektibo sektorial berrienak (esparru maila txikienekoak) ezarritakoak, betiere eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

Ondorio horietarako, adierazten da hitzarmen kolektiboa aplikatu behar zaiela kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei. Esleipen hartzaile gertatuz gero, hitzarmena hau da: ....

Bosgarren.- Enpresa esleipen hartzaile gertatzen bada, lan baldintzen inguruan eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du; informazio hori kontratua esleitu ondoren kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien baldintzei buruzkoa izango da.

Seigarren.- Konpromisoa hartzen du lanak segidan azaltzen den proposameneko eskaintza ekonomikoaren zenbatekoan eta epean, eta ondoren azaltzen diren unitate prezioetan, egiteko:

| **PROPOSAMENA** | **ESKAINTZA EKONOMIKOA LETRAZ ETA ZENBAKIZ** | |
|---|---|---|
| | PREZIOA (letraz) | |
| | PREZIOA (zenbakiz) | |
| | BEZa (% ...) | |
| | **GUZTIRA (BEZa barne)** | |

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Bide Azpiegituretako Departamentua**

## II. ERANSKINA ERANTZUKIZUNEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, LIZITAZIO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOA

Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24 (EB) Zuzentarauak (aurrerantzean “zuzentarau berria") 59. artikuluan ezartzen duenez, kontratazio organoek “Europa Batasuneko kontratazioko agiri bakarra” izeneko agiria onartuko dute lizitazio prozedura batean parte hartzeko baldintzak bete izanaren aldez aurreko froga gisa, baldintza horiek betetzeari buruzko egiaztagirien ordez; hain zuzen ere, adierazpen formala eta eguneratua aurkeztuko du enpresa interesatuak, non egiaztatzen den eskatutako gaitasun baldintzak betetzen dituela, kontratatzeko debekurik ez izatea barne; kaudimen ekonomiko-finantzarioari eta tekniko edo profesionalari buruzko baldintzak betetzen dituela; eta kontratazio agiriak ezartzen dituen gainerako hautapen eta partaidetza irizpideak ere betetzen dituela.

Enpresek aukera dute, ez obligaziorik, Europar Batasuneko kontratazioko agiri bakarra (aurrerantzean EKAB) lizitazioan parte hartzeko lehen fase honetan aurkezteko.

Zuzentarau berriaren 59. artikulua garatuz, Europako Batzordeak 2016/7 Erregelamendua (EB) onartu zuen joan den urtarrilaren 5ean (zuzentarau berriaren 59.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko egindakoa), eta erregelamendu horrek Europar Batasuneko kontratazioko agiri bakarraren inprimaki normalizatua finkatzen du..

http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32016R0007&from=ES

2016ko apirilaren 18tik aurrera, zuzentarau berriaren 59. artikuluak adierazten duen EKAB prestatzeko erabiliko da II. Eranskinean jasotzen den inprimaki formalizatua.

EKAB inprimaki normalizatua bete behar duten enpresak bideratzeko asmoz, Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak gomendio bat prestatu du kontratazio organoei zuzenduta, helbide elektroniko honetan aurki daitekeena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

Batzordeko zerbitzuek doan jarriko dute EKAB zerbitzua botere esleitzaileen, operadore ekonomikoen, zerbitzu elektronikoen hornitzaileen eta bestelako alderdi interesatuen eskura: (https://webgate.acceptance.ec.europa.eu/growth/tools-databases/ecertis2/resources/espd/index.html.

Aipatutako EKAB zerbitzuak aukera emango die operadore ekonomikoei dokumentua bide elektronikoz betetzeko kasu guztietan eta, horrela, eskainitako zerbitzuaren abantaila guztiak aprobetxatu ahal izango dituzte (bereziki, informazioa berriro erabiltzea). Kontratazio prozedurei dagokienez, komunikazioko baliabideen erabilera atzeratu den kasuetan, EKAB zerbitzuak aukera ematen die operadore ekonomikoei elektronikoki betetako agiria inprimatzeko eta paperean edukitzeko, eta, horrela, elektronikoak ez diren beste komunikazio baliabide batzuen bidez botere edo entitate esleitzaileei bidaltzeko (hori egin ahal izango da 2018ko apirilaren 18ra arte, beranduenez jota).

Hala ere, 2018ko apirilaren 18ra arte, beranduenez, EKAB agiriaren bertsio elektronikoak eta paperezkoak batera erabili ahal izango dira.

Kontratazio honen ondorioetarako, V. zatiaren salbuespen bakarrarekin (hautagai kualifikatuen kopurua murriztea), operadore ekonomikoek EKAB zerbitzuaren inprimaki normalizatuan dagoen informazio guztia eman beharko dute, II. eta III. ataletan azpikontratistei dagokienez jasotakoa barne, operadore ekonomikoak haien gaitasuna oinarritzat hartzen ez duenean.

Operadore ekonomikoak kontratazio prozeduratik kanpo utzi edo epaitu ahal ezingo dira legedi nazionalaren arabera kasu hauetan: aitorpen faltsuak eta larriak egiten badituzte EKAB betetzerakoan edo, orokorrean, informazio faltsua ematen badute prozeduratik kanpo gelditzeko arrazoirik ez dagoela egiaztatzeko, hautaketa irizpideak betetzen dituztela frogatzeko, edo informazio hori ezkutatzen badute, edo ezin badute egiaztagiririk aurkeztu.

Bere kontura parte hartzen duen eta hautaketa irizpideak betetzeko beste entitate batzuen gaitasunera jo beharrik ez duen operadore ekonomikoak EKAB bakar bat bete beharko du.

Bere kontura parte hartzen duen, baina hautaketa irizpideak betetzeko beste entitate baten edo batzuen gaitasunera jo behar duen operadore ekonomikoak nahitaez bermatu beharko du botere edo entitate esleitzaileak, bere EKAB propioa jasotzeaz gain, entitate bakoitzaren informazioa jasotzen duen beste EKAB bat ere jasoko duela.

Operadore ekonomiko taldeek, aldi baterako elkarteak barne, batera parte hartzen dutenean kontratazio prozeduran, bereizitako EKAB bat aurkeztu beharko da, eta parte hartzen duen operadore bakoitzak II-V zatietan eskatutako informazioa aurkeztuko du.

## III. ERANSKINA LANETAN PARTE HARTUKO DUTEN LANGILEEN ZERRENDA

| LANGILEAK | | ESPEZIALIZAZIOA | | ENPRESAREKIKO LOTURA | ESLEITU BEHARREKO LANETARAKO DEDIKAZIOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ABIZENAK ETA IZENA | TITULAZIOA | Trebakuntza Espezifikoa | Esperientzia (urteak) | Dedikazioa (1) | Kargua kontratuan | Dedikazioa (%) | Denbora GARBIA (2) |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

(1) Osoa, partziala edo aholkularitza
(2) Urteko hilabeteetan

**(Lekua eta data)**
**ENPRESAREN ZIGILUA ETA SINADURA BAIMENDUA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**
**BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA**

## IV. ERANSKINA ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA, ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO GAITASUN BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOA

**(I. gutun-azalean sartu beharrekoa, gaitasun eta kaudimenaren dokumentazioaren ordez)**

**Aurkezlea**
Izena: ..................................................................... Nortasun agiria:: ..............................
**Ordezkatua**
Sozietatearen izena: ......................................................................................... IFK: ..............................
Sozietatearen egoitza: ..........................................................................................................................

Aurkezleak edo ordezkatuak behar adinako ahalordea du horretarako eta indarrean dagoen kontratu administratiboen legediak eskatutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

**ADIERAZPENA**

**Lehenengo:** Izenpetzaileak edo ordezkatzen duen enpresak baditu kontratu hau sinatzeko beharrezkoa den nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa.

Prozedura honetara aurkezten den pertsona juridikoaren jarduera eremua, helburuak eta xedea, bere estatutuetan edo sortze-arauetan azaltzen direnak, kontratu honen prestazioak gauzatzekoak dira.

**Bigarren:** Betetzen ditu baldintza berezien agiriko bederatzigarren klausulan eskatutako beharkizunak, zehazki, hauek:

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa
- Kaudimen teknikoa edo profesionala

Edo, bestela, bederatzigarren klausula horretan aipatzen den d) atalak (1. gutun-azala: Gaitasuna eta Kaudimena) zehaztutako sailkapena:

Taldea: ____ Azpitaldea: ___eta___ Kategoria: ____
Taldea: ____ Azpitaldea: ___eta___ Kategoria: ____

**Hirugarren:** Agiri honetako bederatzigarren klausulako 1. atalean (1. gutun-azala: gaitasuna eta kaudimena) a) edo d) hizkietan aipatzen diren eskakizunak bertan adierazten diren agirien bitartez egiaztatzen badira, aurkeztu dituen ziurtagirietan ageri diren datuak zehatzak direla eta ez dutela aldaketarik izan geroztik.

**Laugarren:** Izenpetzaileak, ordezkatzen duen enpresak eta bere administratzaileak edo ordezkariak ez dute ezgaitasun eta bateraezintasun kausarik, edo kontratatzeko debekurik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak aurreikusitakorik. Zehazki, berariaz adierazten du ez duela zigor irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloko inolako urraketa oso larrirengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60.1b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Bosgarren:** Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dago. Zehazki adierazten du alta emanda dagoela Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan. (1)

Esleipen proposamena bere aldekoa bada, BAIMENA EMATEN DU / EZ DU BAIMENIK EMATEN (*) ordezkatzen duen enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen zerga betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa Administrazio kontratatzaileari emateko.

**Seigarren:** Bat egiten du eta konpromisoa adierazten du exekuzioko baldintza bereziekin, gizarte edo ingurumen izaerakoekin, edo plegu honetan ezartzen diren beste politika publiko batzuei buruzkoekin.

**Zazpigarren.-** Konpromisoa hartzen duela, bere osotasunean betetzeko Gipuzkoako foru administrazioko eta foru sektore publikoko gainerako entitateetako kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua, Diputatuen Kontseiluak 2017ko irailaren 5ean onetsitakoa, eta Web orri honetan jasota dagoena:

http://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/923643/Kontratazio_kodea-es.pdf/e014801b-3e70-fd79-8ac2-d63ea19aa374

**Zortzigarren:** Ez duela interes-gatazkarik eta ez duela beste lizitatzaileekin edo proiektuko beste alderdi interesatuekin inolako harreman baliokiderik. Kontratua gauzatzen den epealdian horrelako egoerarik emango balitz, enpresak botere esleitzaileari jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

**Bederatzigarren:** Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako telekopia eta posta elektronikoko helbidea honako hauek dira:___________________________

**Hamargarren:** Atzerriko enpresa izanez gero, ordezkatzen dudan enpresak Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegiren mende jartzen du bere burua kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan,, lizitatzaileari atzerrian egokitu dakiokeen jurisdikzio foruari uko eginez hala dagokionean.

*(*) Ezabatu balio ez duena*

(1) Hala ere, proposamena aurkezteko momentuan, enpresariak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergapeko inolako jarduerarik egiten ari ez bada, ez du zerga horrekiko inolako obligaziorik izango, eta, proposamena aurkezteko garaian, zerga betebeharretan egunean dagoela ulertzeko ere ez du zerga horretan alta emanda egon beharko.

**(Lekua, data eta sinadura)**

## V. ERANSKINA ELKARLOTURA DUTEN ENPRESEN ADIERAZPENAREN EREDUA

**Aurkezlea**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Izena: | ................................................................ | Nortasun Agiria: | ....................................... |
| Helbidea: | ................................................................................................................................................ | | |

**Ordezkatua**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sozietatearen izena: | ................................................................ | Identifikazio Fiskaleko Kodea: | ................. |
| Helbidea: | ................................................................ | Telefonoa, faxa, helbide elektronikoa: | ............................. |

Aurkezleak adierazten du, ordezkatzen duen enpresa,

□ Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako KASUREN BATEAN SARTZEN DELA

□ Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako KASUETAN EZ DELA SARTZEN

Erantzuna baiezkoa bada:

□ Kontratuaren esleipenera indibidualki EZ DUTE PROPOSAMENIK AURKEZTEN lizitatzailea kide den talde bereko enpresek, edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako kasuen batean sartzen den beste enpresa batzuek, elkarloturik egonda.

□ Kontratuaren esleipenera INDIBIDUALKI PROPOSAMENAK AURKEZTEN DITUZTE lizitatzailea kide den talde bereko enpresak, edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako kasuen batean sartzen den beste enpresa batzuek, elkarloturik egonda. Hona hemen enpresa horien zerrenda:

<u>Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK)</u> <u>Enpresaren izena</u>

(*) *<u>Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua:</u>*

“Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

Talde bat dago sozietate batek beste baten edo beste batzuen kontrola duenean edo eduki dezakeenean, zuzenean edo zeharka. Zehazki, kontrola badagoela esango da, sozietate bat beste sozietate bateko bazkide denean –lehenari nagusia eta bigarrenari mendekoa esango zaie–, eta nagusia kasu hauetakoren batean dagoenean mendekoari dagokionez:

a. Boto eskubideen gehiengoa duenean.
b. Administrazio organoko kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko eskumena duenean.
c. Beste bazkide batzuekin lortutako akordioen bidez boto eskubideen gehiengoa eskuratu dezakeenean.
d. Kontu finkatuak emateko garaian eta horren aurreko bi ekitaldietan, administrazio organoa osatu duten kideen gehiengoa bere botoekin bakarrik aukeratu duenean. Zehazki, gorabehera hori badagoela esango da, mendeko sozietateko administrazio organoko kide gehienak sozietate nagusiko edo hark mendean duen beste bateko administrazio organoko edo goi zuzendaritzako kide direnean. Kasu honek ez du finkapenik eragingo, baldin eta izendatutako administratzaile horien sozietatea beste batekin elkartuta badago artikulu honetako lehen bi hizkietan aurreikusitako kasuren batean.

Ondorio horietarako, entitate nagusiaren boto eskubideei erantsi egingo zaizkie mendeko sozietateen bitartez dituen boto eskubideak, norberaren izenean baina entitate nagusiaren edo beste mende entitate batzuen kontura dihardūten pertsonen bitartez dituenak, eta beste edonorekin egindako hitzarmenaren bitartez dituenak.”

**(Lekua, data eta sinadura)**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**
**BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA**

## VI. ERANSKINA BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ETA EXEKUZIOKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEAREN ADIERAZPEN-EREDUA

**Aurkezlea** (adinez nagusia):
Izena: ................................................................. Nortasun agiria: .............................................
Helbidea: .............................................................................................................................................

**Ordezkatua:**
Sozietatearen izena: ................................................................. IFK: .................................................................
Helbidea: ................................................................. Telefonoa, faxa, edo helbide elektronikoa: ..................................

Aurkezleak adierazten du, ordezkatzen duen enpresak:

1. Konpromisoa hartzen du produkzio antolaketa kontratatutako jardueran garatzeko, eta, gainera, kaudimen teknikoaren egiaztapena osatzeko xedez, enpresak konpromisoa hartzen du, halaber, exekuziorako langile eta bitarteko materialen artean, jarraian zehazten diren bitartekoak atxikitzeko eta lan osoak irauten duen bitartean mantentzeko:

| GIZA BALIABIDEAK | PROFILA |
|---|---|
| Obra zuzendaria.<br><br>Bide, Ubide eta Portuetako goi mailako ingeniaria, edo Bide, Ubide eta Portuetako Unibertsitate Master baliokidea duena Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, errepideetako tunelen obren zuzendaritzan esperientzia duena. | 10 urteko gutxieneko esperientzia errepideetako tuneletako obrak zuzentzen, % 91,67eko dedikazioarekin<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Aukeratu edo adierazi titulazioa eta euskara maila |
| Euste, estaldura, kanalizazio eta filtrazio obrak nola egiten diren kontrolatzea eta kalitateaz arduratzea.<br>Bide, Ubide eta Portuetako goi mailako ingeniaria, edo Bide, Ubide eta Portuetako Unibertsitate Master baliokidea duena Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, errepideetako tunelen obretan esperientzia duena. | 10 urteko gutxieneko esperientzia errepideetako tuneletan, % 63,33ko dedikazioarekin<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Aukeratu edo adierazi titulazioa eta euskara maila |
| Instalazioen eta komunikazioen exekuzioa kontrolatzea eta kalitateaz arduratzea.<br>Industri ingeniaria, edo Ingeniaritzan Unibertsitate Master baliokidea duena Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, errepideetako tuneletako instalazio elektrikoetan aditua. | 10 urteko gutxieneko esperientzia errepideetako tuneletan, % 88,33ko dedikazioarekin<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Elija o indique la titulación y euskara |
| Betearazpena kontrolatzea eta instalazioen eta komunikazioen kalitateaz arduratzea.<br>Industri ingeniaria, Telekomunikazio ingeniaria edo Ingeniaritzan Unibertsitate Master baliokidea duena Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparruan, ITS instalazioetan aditua. | 10 urteko gutxieneko esperientzia errepidetako tuneletan, % 71,67ko dedikazioarekin<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Elija o indique la titulación y euskara |
| Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea | 5 urteko gutxieneko esperientzia laneko segurtasunaren eta osasunaren koordinazioaren esparruan, % 75eko dedikazioarekin. |

| | |
|---|---|
| Segurtasuneko eta osasuneko teknikaria: Eraikuntzako teknikaria = aparejadorea, arkitekto teknikoa, gradukoa edo goi mailako arkitektoa, ingeniari teknikoa, gradukoa edo goi mailakoa (industriakoa, meatzeetakoa, ingeniaritza zibilekoa, herri-lanetakoa edo bide, ubide eta portuetakoa). Horrez gain, Segurtasun eta Osasun arloko koordinatzaile titulua izan behar du, erakunde ofizial edo egiaztatu batek emandako, nahiz ondorio horretarako egiaztatutako lanbide elkargo edo fundazio batek emandakoa, gutxienez 200 ikastordukoa, 1627/1997 Errege Dekretuko 2. gehigarriko ("Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaile eginkizunak gauzatzeko formazio programaren gutxieneko edukiak") Gida Teknikoan adierazitakoari jarraituz. | |
| Obra zaintzailea | 3 obra zaintzaile, 5 urteko esperientzia dutenak, obrak zaintzen eta % 50eko dedikazioarekin. |
| Instalazioen zaintzailea | 3 instalazio zaintzaile, 5 urteko esperientzia dutenak, instalazioak zaintzen eta % 66,67ko dedikazioarekin. |
| Delineatzaile proiektista | 5 urteko esperientzia obra proiektuen delineazioan, % 45ko dedikazioarekin |
| Administrari laguntzailea | 5 urteko esperientzia administrari laguntzaile lanetan, % 45eko dedikazioarekin |
| SCADA sisteman espezialista: Telekomunikazio ingeniaria edo Unibertsitateko Master baliokidea duena Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, SCADAs Wonderware sistemetan aditua. | 8 urteko esperientzia, SCADAs Wonderware sistemaren garapena kontrolatu eta kudeatzen, % 45eko dedikazioarekin. |
| Komunikabide sareetan espezialista: Telekomunikazio ingeniaria edo Unibertsitateko Master baliokidea duena, Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, telekomunikazio sareetan aditua. | 8 urteko esperientzia telekomunikazio sareak definitzen eta abian jartzen eta/edo abian jartzea kontrolatu eta kudeatzen, % 26,67ko dedikazioarekin. |
| Tunelak egiteko geologia eta geoteknian espezialista: Geologian lizentziaduna, Ingeniari geologikoa, Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria, azpiegitura linealetako tunelak egiten esperientzia duena, edo Unibertsitateko Master baliokidea duena Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, azpiegitura linealetan tunelak egiten aditua | 8 urteko esperientzia azpiegitura linealen tunelak egiten, % 36,67ko dedikazioarekin. |
| Topografo espezialista: Topografiako ingeniari teknikoa edo geomatika eta topografiako gradudun baliokidea, Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan. | 8 urteko esperientzia topografian, % 26,67ko dedikazioarekin. |
| **BITARTEKO MATERIALAK** | **DESKRIBAPENA** |
| Bi ibilgailu | Bi ibilgailu utilitario, lantaldeak behar adinako mugikortasuna izan dezan bere funtzioak garatzeko |
| Lanak online jarraitzea | Plataforma bat lanen jarraipena online egiteko, dokumentuak zerbitzari pribatu batean egon daitezen (ez kanpoko zerbitzarietan) eta kudeaketa plataforma batean argitara daitezen Aldundiak jarraipena egiteko |

2. Bitarteko material eta langile horiek sartuta egongo dira aurkezten den proposamenean, eta, hortaz, sinatzen den kontratuan ere bai, esleipen hartzaile izaten bada. Edozein aldaketa eginez gero, Administrazioari jakinarazi beharko zaio, eta ez betetzea kontratua suntsitzeko nahiko arrazoi izango da.

3. **"San Lorentzo-Larreko tuneleko Iruñeko noranzkoko hodian (AP-15 autobidea) estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko (2004/54/CE Direktiba) proiektuko obrak zuzentzea (3-IN-21/2017 DO)"** izeneko espedientearen kontratua gauzatzeari dagokionez, konpromisoa hartzen du Baldintza Administratiboen Agiri honetan adierazi diren baldintza bereziak betetzeko.

Horrela jasota gera dadin sinatzen dut adierazpen hau.

Lekua, data eta sinadura

Gipuzkoako Foru Aldundia
Bide Azpiegituretako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Infraestructuras Viarias

## VII. ERANSKINA ESKAINTZA ERREGISTROAN AURKEZTEKO EREDUA

**Aurkezlea**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Izena: | ................................................................. | Nortasun agiria: | ....................................... |
| Helbidea: | ............................................................................................................................ | | |

**Ordezkatua**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sozietatearen izena: | ................................................................. | Identifikazio Fiskaleko Kodea: | ................. |
| Helbidea: | ................................................................. | Telefonoa, faxa eta helbide elektronikoa: | ............................. |

**AURKEZLEAK ADIERAZTEN DU:**

**“San Lorentzo-Larreko tuneleko Iruñeko noranzkoko hodian (AP-15 autobidea) estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko (2004/54/CE Direktiba) proiektuko obrak zuzentzea (3-IN-21/2017 DO)”** kontratatzeko lizitaziorako bere eskaintza osatzen duten hiru gutun-azalak aurkezten dituela gaurko egunean.

Ordua: ..................... (*)

Donostia, ...................................................... (data)

Sinadura:

(Aurkezlearen sinadura)

(*) *Erregistroko arduradunak bete behar du.*

**BIDE AZPIEGITURETAKO ERREGISTRO OROKORRA**